

Herririk Herri |4|

GazteHerria jaialdian Berri Txarrak eta Ojos de Brujo taldeak entzungai

Ekonomia |10|

Protestak antolatu dituzte A8an hildako bi beharginen heriotza salatu guran



Berbaz |9|

Xabier Madariaga: "Haitin, daukada-na gehiago baloratzen ikasi nuen"

Tabirako eta Anboto, euskara eta kirola batuz

Durango • Tabirako saskibaloitaldeak eta Anboto Komunikabideak-ek lankidetzahitzarmena sinatu dute asteen. Datozen hiletan Tabirakok antolatuko dituen ekintzen jarraipena egingo du Anbotok. **3**

Zuzendari eta eszena berriekin dator 'Pasiñoa'

KULTURA • Martxoaren 31n, apirilaren 1ean eta 2an Santa Ana plazan ikusgai izango den XVII. Durangoko Pasiñoa aurkeztu dute asteen. Xabier Aranak hartu du antzezenaren zuzendaritza. **13**

ORDU ALDAKETA!

Igande goizaldean,
02:00etan
03:00ak
izango dira



• Iurreta

Hilerria handitzeko lanak urtarilean amaitu zituzten **4**

• Durangaldea

Mallabiako eta Durangoko abesbatzak finalaren atarian **6**

• Elorrio

Emakumeen Eskolak hiru ikastaro antolatu ditu **4**

Durangoko emakumeen kartzela gogora ekarriz

Durango, martxoaren 31ko bonbardaketa oroitzeko ekitaldi sorta antolatu dute

Emakumeen kartzela izan zena martxoaren 30ean ekarriko dute gogora

'Oroimenaren haritza' landatuko dute kartzela izan zenaren aurrean **2**



Judit Fernandez

Duatloiagaz hitzordua daukagu Durangon

Durango • Mugarra triatloi taldeak IV. Zarate eta Elexpe Duatloia antolatu du zapatarako. Froga hori Euskadiko Duatloi Zirkuituan puntuagarri denez, kirol horretan lehiatzen diren

espezialista onenetakoak batuko dira Durangon. Parte-hartzaileek 9 kilometro egin beharko dituzte arineketan, 40 bizikletan eta beste 5 arineketan. Gazte, beterano eta nagusien mailetan lehiatuko dira. **17**

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateyexpe.biz

APAINGARRI ETA INDUSTRIALA

Pinfaras
Sagasta
Pinfarak

Sagasta auzoa
Anbe Goikoa
48220 ABADIÑO
Bizkaia
Tel.: 629 143 944
Ibai Urien Madrazo

• Fatxadetarako proiektu bereziak (inpermeabilizazioak, barnizatuak, ...)
• Era guztietako barne eta kanpoko dekorazioak (lokalak, tabernak, etxebizitzak, ...)

HERRIRIK HERRI >

DURANGO

Emakumeen kartzela gogoratuko dute Martxoaren 31ko ekitaldien artean

Orain frantsesen komentua dagoen tokian egon zen; 2.000 emakume hartu omen zituen gerra ostean



Gerediaga, Barbaro, Kriskitin eta Durangoko Udaleko ordezkariak izan ziren aurkezpenean.

Gerediaga elkarteak, Berbaro euskara elkarteak, Kriskitin dantza taldeak eta Durangoko Udalak martxoaren 31 dela-eta hainbat ekitaldi prestatu dituzte. Horien artean Durangon, orain frantsesen komentua dagoen tokian, emakumeen kartzela egon zela gogoratuko dute hilaren 30ean Gerediagak, Berbarok eta Kriskitinek antolatutako Oroimen Egunean.

Jon Irabazal Gerediagako kideak kontatu duenez, "orain 70 urte, urtea hasteagaz batera zabaldu zuten kartzela, eta urtebetean egon zen indarrean". Kartzela horrengainean "ia inorkezu duiker-

tu", baina testigantzen arabera "2.000 emakume" egon ei ziren. Kartzela horri buruz dakigun apurra, Tomasa Cuevasen lanari aintzatetsi dio Irazabalek: "Durangoko kartzelan egon eta gero, Espainiako emakumeen kartzelak ikertu eta liburu bat idatzi zuen".

Martxoaren 31n, 20:00etan, oroimen ekitaldia (aurrekua, lore eskaintza...) egingo dute Andra Mariko elizpean

Durangoko kartzelan, besteak beste, Rosario Sánchez egon zen, "gerrazibilaren literaturan oso pertsona ezaguna". Miguel Hernández olerkariak olerki bat idatzi zion *Rosario la dinamitera* izeneko: "1942ko martxoaren 28an hil zen Miguel Hernández, hain zuzen ere, Rosario kalera irten zen egun berean". Durangoko kartzelan 10 lagun hil ei ziren: bost haur eta bost nagusi. Haurretako baten heriotzaren zergaiti moduan "zahardadea" jarri zuten: "Argi dago haur bat ezin daitekeela zahardadez hil. Elikagai eta edari falta izan zuen".



Urtebetean izan zen espetxea zabalik. Gerediaga elkarte

mitera-ri egin zion elkarrizketa emango dute. Martxoaren 31n, Andra Mariko elizpean ekitaldia egingo dute, 20:00etan. Etxe kantariak Xabier Amurizak eta Ander Ertzillak bonbardaketaren harira sortutako kanta abestuko du, baita Berrizen gerraostea pairatutako konposatutako berea ere. Manifestua irakurriko dute, eta Kriskitinek aurrekua eskainiko du.

Udalaren ekitaldiei dagokien, martxoaren 28an, Andra Mariko elizpean Eduardo Relero margolari argentinarrek anamorfosis teknikaren bitartez egindako irudi-marrakia ikusteko aukera eskainiko dute. Teknika horrek ikuspuntu egokia eskatzen du irudia ondo ikusteko. Irudia bonbardaketaren ingurukoa izango da.

Azkenik, martxoaren 31n, 12:00etan, gerra zibilean hildakoei omenaldia egingo diete kanposantuan, monolitoaren parean. Kriskitinek aurrekua dantzatuko du, eta Bartolome Ertzillako soka laukoteak ere parte hartuko du, besteak beste. Autobus zerbitzua eskainiko dute, 11:30ean, Jesuiten

Ekimenari dagokionez, martxoaren 30ean, 19:00etan, haritz bat landatuko dute frantsesen komentuen ondoan (Nevers eskolaren aurrean). Ondoren, 19:30ean, San Agustin kulturgunean jarraituko du oroimen ekitaldiak. Iban Gorritiren *Kantatzen ez duen herria herri hila da* film laburra eskaini ondoren, kartzela bizi izan zuen Edurne Gorosarriren testigantza zuzena ezagutu ahalgo da. Ondoren, Maria Gonzalez Gorosarrik *Rosario la dina-*

Eduardo Relero margolariak anamorfosis teknikaren bitartez egindako lana ikusi ahalgo da etzi Andra Marian

"Herrira bueltan, kalean iraintzen gintuzten eta ama salatu zuten"

Edurne Gorosarrik ama eduki zuen kartzelan. Egunero, amamak prestatutako jatekoa espetxeko sarreran uzten zuen, leihotik ama ikusteko aukerarik edukiko zuelakoan.

Zelan hartu duzu testigantzen berri emateko gonbita? Sinestu ezinik nabil, pozarren. Amari injustizia handia egin zitzaion, amak ezer egin barik. Familia osoa markatu gintuen: ahizpok zerbitzatzen irten behar izan genuen. Momentu horretatik aurrera ez ginen berriro etxean gurasoekin bizi izan.

Zergatik kartzelaratu zuten? Durangoko bonbardaketa eta gero, erbestera alde egin genuen. Frantziak 1938an mugan ipini gintuen: Bartzelonara (oraindik Errepublikak agintzen zuen) edo Bilborajateko (dagoeneko, Fran-

coren menpe). Gu Durangora bueltatzea erabaki genuen, ez genuen-eta ezer ere egin! Erbestetik bueltatu ginenetik, kalean iraintzen gintuzten, eta ama salatu zuten. Handik hilabetera atxilotu zuten.

Zelan jakin zenuen ama kartzelan zegoela?

Amamaren baserrian ez zegoen denontzako jatekorik, eta Forura eramanez ninduten, izeko baten etxera. Gernikako plazan beste ume batzuekin olgetan nembilela, Francoren aldeko durangar batzuek barre egin gura izan zidaten, bonbardaketa egunetik aita-

ren berririk ez genuelako (hilda zegoelakoan) eta ama kartzelan neukalako.

Kartzelara bisitan joan zinen?

Foruko izekok Bilboko espetxera eramanez ninduen, ama ikusi gura nuelako. Gela ilun hartan, burdin hesi biren artean, amari ilea ebaiki ziotela ikustean, negarrez hasi nintzen. Hirurok bisita osoa negar batean eman genuen. Gero, Durangora ekarri zuten, egunero jatekoa eramanez nion eta, disimuluagaz, leihotik aguresaten zidan, beldur handiagaz. Durangon sarriagotan joatzen ginen. Ahizpa txikiak jaunartzea egin zue-

nean ere, hara joan ginen familia osoa, amak ikusteko!

Harek zer kontatzen zuen?

Behin bakarrikentzun nion Bilboko kartzelan gauez lagunen bat fusilatzeke ateratzerakoan sentitutako mina. Besterik ez zuen inoiz esan. Frantsesetatik kanposantura eramanez zuten. Aita Frantzian kontzentrazio zelaian egon zen arren, aipatu ere ez zuen gura izaten. Gertatu ez balitz legez. Eduki dugun beldurra sinestezina da. ■ M. González

Eduki dugun beldurra sinestezina izan da



Amari injustizia handia egin zitzaion, berak ezer egin barik



Haurreskolarako laguntza eskatzeko azken egunak

Durangoko haurreskolara bideratutako diru-laguntza eskatzeko epea apirilaren 12an amaituko da. Laguntza jaso gura duenak Udalak Andra Mari ondoan duen Arreta Zerbitzuko Bulegoan egin dezake gestioa. Astelehenetik ostegunera 08:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara dago zabalik, eta ostiraletan eguerdira arte bakarrik.

Laguntza horiek lehenengoz emango dira Durangon, eta bere sasoiari Aralar alderdiak proposatu zituen eta Gobernu Taldeagaz adostasunean irten ziren aurrera.

Apirilaren 12ra arte eskatu daitezke haurreskolarako diru-laguntzak, Udaleko Arreta Zerbitzuko Bulegoan

Laguntzak erregulatzen dituen ordenantzak jasotzen duenez, Durangotik kanpoko haurreskolelara daramatzaten umeen familiek ere jaso dezakete laguntza, beti ere, justifikatutako kasuetan: aitak edo amak herri horretan behar egiten badute, esaterako. Laguntzak eskatzeko, besteak beste, urteko irabazi likidoek ordenantzak zehazten dituen kopurua- ren barruan behar dute. ■ J.D.

Tabirakok eta Anbotok euskara eta kirola uztartzeko hitzarmena sinatu dute asteon

Tabirakoren eta Anbotoren helburua bien arteko elkarlana bultzatzea da

Durangoko Tabirako saskibaloitza taldeak eta Anboto Komunikabideak-ek hitzarmena sinatu zuten atzo. Euskara eta kirola batzeko ahaleginean, bi elkarteek lankidetzara-

Bi taldeek lankidetzarako bidean urrats berriak emateari ekin diote asteon

ko bidean urrats berriak emateari ekin diote. "Anboto Tabirakoren babeslea izatea garrantzitsua da herrian hain errotuta dagoen talde bati bultzada emateko", dio Jone Guenetxea Anbotoko zuzen-



Anbotok lurretan daukan egoitzan sinatu dute akordioa bi elkarteetako zuzendariak.

dariak. Auzolanean dihardute talde-lanari emaitzei baino garrantzia gehiago emanez, eta ahalegin hori txalotzekoa dela deritzot", gaineratu du. Tabirakoren presidentea den Hilario Perezek poztasunez hartu du akordioa. "Anboto lako proiektu batez bat gatoz, euskara bultzatuz eta kirolean ematen ditugun urratsak bere komunikabideetan agertuz".

Urtemuga

Tabirakorendako urte berezia da hau, eta Anbotok bidelagun izan gura du. Aurten taldearen 50. urtemuga gogora ekartzeko egitarau zabala antolatu dute, urte

Anboto Tabirakoren urtemugako datozen ekitaldien babeslea da

guztitan. Hurrengo hilabeteetarako ekintza ugari prestatzen dihardute. Maiatzean emakumezkoen selekzioen topaketa antolatuko dute. Ekainean, berriz, gizonezkoen kadeteen selekzioen estatu mailako txapelketa eta entrenatzaileen klinika.

Denboraldi amaierako bazkaria eta 50. urtemugako amaieragaz Landako Gunea beteko dute. Gainera, III. Tabirako-Sukia Uda Eskola ere prestatzen dabil-tza. Urteurrenaren dokumentalean taldearen historia jasoko dute, bestalde. ■ I.E.

Durangoko Pasiñoa

La Pasión de Durango

XVII edizioa 2010

martxoak 31 · apirilak 1, 2

Santa Ana enparantza 21:15

ASOCIACION CULTURAL
juan de icar
santiar egunkaria

DURANGO
Udala - Ayuntamiento

BFA
DFB

Bizkaiko Foru
Aldundia
Deputatuon
Foral de Bizkaia

bbk

DURANGO

Indenpentziaren aldeko GazteHerria jaialdia apirilaren 2an

Besteak beste, Berri Txarrak eta Ojos de Brujo taldeek kontzertua eskainiko dute

Eremu eta arlo askotariko gazteen ekimena da GazteHerria, Euskal Herriaren independentzia eraikitzea helburu duena. Bide horretatik, apirilaren 2an, Durangon, independentziaren aldeko jaialdia antolatuko dute; musika, hitzaldiak, tailerrak... denetarik egongo da goizean hasi eta gauera arte.

Ekimenak lau gunetan burutu dituzte. Merkatu plazan *Gazteok eta independentzia* hitzaldia eskainiko dute, 12:30ean. Ordu berean hasita, hainbat tailer ere egingo dituzte. Gune horretako ekitaldiak musikagaz amaituko

Plateruena kafe antzokian Gosek eta talde sorpresa batek kontzertua eskainiko dute 03:30etik aurrera

dira; 23:00etatik aurrera, Txirritxorra eta DJ Okerreko ibiliko dira giroa berotzen.

Bigarren gunea Kurutzia ikastolan egongo da; 14:30etarako bazkaria prestatuko dute, 1.500 lagun ingururentzat.

Berri Txarrak zuzenean

Landako erakustazokan, 18:00etan hasita, musika kontzertuak egongo dira: Asian Dub Foundation, Ojos de Brujo, Sociedad Alkoholika, Esne Beltza eta Berri Txarrak taldeek joko dute. Sarrera 20 euro izango da.

Amaitzeko, Plateruena kafe antzokian ere hainbat ekitaldi izango dira. 12:30ean hitzaldia emango dute nazioarteko delegaritzagaz (Boliviako, Kurdistaneko... ordezkariak). 03:30etik aurrera, Gose eta talde sorpresa ariko dira zuzenean. ■J.D.

Euskararen ordenantza "duina" eskatu zuten

Euskal Herrian Euskaraz elkarteak kontzentrazioa egin zuen martitzenean udaletxearen aurrean

Euskal Herrian Euskarazek deituta, hainbat durangar batu zen, martitzen arratsaldean, Udaletxe aurrean. Salatu zuten, "osoko batzarrean aurkeztuko diren ordenantzek ez dute hizkuntza eskubideen errespetua bermatuko".

Kontzentrazioan zabalduko oharrean zera argitu gura izan dute: "EHE izan zen herri honetan lehenengoa ordenantzen beharra kaleratu zuena eta, ondorioz, hauen falta salatu zuen lehenengoa". Baina, udalbatzarrera joango diren ordenantza hauek

ondo aztertu ondoren, argi ei daukate ez direla Durangok "merezi eta behar dituenak". Hiru arrazoi nagusi daude ezezkioan: "Izen hori eduki arren, ez dira ordenantzak izango eta, ondorioz, ez dira bete beharrekoak izango". Bigarrenik, "ordenantzak behar baldin badira, koofizialtasun politikaren porrot garbiagatik da". Beraz, ezin dugu elebitasun horretan oinarritutako proposamenik onartu. Hirugarrenik, proposamen horrek "ez du hizkuntza eskubideen errespetua bermatuko". ■J.D./M.O.



Arratsaldeko 19:00etan burutu zuten mobilizazioa.

ELORRIO

Ikastaroak amaitzean esperientziak partekatzeko jaia egiten dute urtero.

Emakume Eskolak hiru ikastaro prestatu ditu aurten

Emakumeentzako topagune izateko helburua du Berdintasun Saitetik sustatutako ekimenak; hilaren 29an zabalduko dute izena emateko epea

Emakumeentzako topagune bihurtu eta emakumeen egoeraren gaineko gogoeta egiteko helburuz Emakumeen Eskola ekimenaren barruan hiru ikastaro antolatu dituzte. Izen-ematea 5 euro da, eta hilaren 29an zabalduko dute Udaletxeko erregistroan; epea ikastaroak hasi baino egun bi lehenago amaituko da.

Lehenengo ikastaroa, *Autodefentsa feminista* izenekoak, apirilaren 17an izango da, euskaraz; Maitena Monroyk eraso sexisten aurrean defendatzeko auto-estimua eta autodefentsa fisiko zein psikologikorako teknika errazak erakutsiko ditu.

Eraso sexistei aurre egiteko teknikak erakutsiko ditu Maitena Monroyk apirilaren 17ko ikastaroan

Bizitzako hainbat egoeratan sortzen diren duda juridikoen gaineko azalpenak emango ditu Isabel Abella abokatuak

Bigarren ikastaroan lehenago edo geroago bizitzako hainbat egoeratan sortzen diren duda juridikoen (amatasuna, ezkontza, banaketa, lan-arloa...) gaineko azalpenak emango ditu Isabel Abella abokatuak modu erraz eta ulerterrazean. Apirilaren 12, 14, 22, 28 eta 29an garatuko da ikastaro hori, gaztelera.

Azkeneko ikastaroa maiatzaren 7, 8, 14, 15, 21 eta 22an emango du Norma Vázquezek (gaztelera). Mendeetan zehar emakumea gutxieteko sortu diren irudien inguruan jardungo du: zelan sortu ziren, zelan heldu diren gure sasoietara... ■J.D.

BERRIZ

Domekan ere spinning egiteko aukera Berrizburun

Domekan spinning saioak antolatu dituzte, eta izen-ematea egunean bertan egin behar da

Igandean ere ekiozu kirolari lelopean Berrizburu kiroldegia aukera eman gura die berriztarrei, domekan ere kiroldegia erabili eta kirola egiteko. Antolatuko dituzten ikastaroak 45 minutukoak izango dira. Jendeak nola erantzuten duen ikusteko spinning saio arinakegingo dituzte martxoaren 28rako. Lehenengo saioa 10:45ean izango da, bigarrena 11:45ean eta azkena 12:45ean. Ekimenak erantzun ona izanez gero, hilean behin, domekan kirola egiteko aukera eskainiko dute, eta eskaerak egonez gero era honetako saioak behin baino

gehiagotan antolatzeko asmoa dute. Spinningaz gainera, beste kirol mota batzuekin ere saiatzeko asmoa daukate.

Izena-ematea, domekan 10:00etatik aurrera izango da. Ikastaroetan parte hartzeko derrigorrezkoa da oinetako, arropa eta toalla eramatea. Ikastaroaren prezioa 1,50 eurokoa da. ■G.A.

Ekimenak erantzun ona izanez gero, saio gehiago antolatzeko asmoa daukate

GARAI

Herriko Tabernaren kudeaketa adjudikatuta

Eguazten honetan ohiko udalbatzarra ospatuz Garain, berbagai nagusia Herriko Taberna kudeatzeko adjudikazioa izanik. Orain arteko arduradun berberak jarraituko dute funtzioan, euren bakarrikagertu dutelako interesa.

Datozen bost urteetarako alokairua adjudikatu du Udalak, eta luzapena beste bost urtekoa izan daiteke, beti ere urtero-urtero berrituz behar izango delarik. 2.500 euroko errenta ordaindu beharko dute hilean; BEZa ere bai. Adjudikazioa jaso duten kudeatzaileek, maiatzaren 30 urte beteko dituzte Herriko Taberna kudeatzen. ■M.O.

DURANGOKO BONBARDATZEAK OROITUZ



2010eko martxoaren 28tik 31ra

31

MARTXOAK

CONMEMORACIÓN DE LOS BOMBARDEOS DE DURANGO



KULTURIA SALA

DEPARTAMENTO DE CULTURA

ATXONDO

Maisuen etxea zena berrizten hasi dira

Udalak herriko zerbitzuak berrantolatatzeko hainbat lan aurreikusitu ditu urte honetarako, eta lehena go 'maisuen etxea' izandakoa ere lan horien artean dago. Izan ere, Posta Bulego berria orain arte brigadentzako aldagelak eta biltegia egon diren lokalean dabilza egiten, eta brigadentzako espazio hori maisuen etxea zenekora pasatuko da.

Oraintsu hasi dira lehengo maisuen etxea margotzen eta atontzen. Auzolan programaren bitartez, Durangaldeko Amankomunazgoak zortzi behargin kontratatu ditu lan horretarako, eta abuztura arte jardungo dute berriztatze-lanetan.

Brigadentzako aldagelak eta biltegia jarriko dituzte bertan. Hasi dira lanak, eta abuztura arte iraungo dute

Horrenbestez, orain arte maisuen etxea izandakoan lokala zuten kultura eta musika taldeak lokal berrietara mugitu dira. Kultur taldeek eta musika taldeek Gaztetxe gainean dituzte lokal berriak. Dantza taldeak, berriz, frontoi albora eraman du materiala, eta Txistulari taldeak Udaletxeko lokal bat dauka bere entseguetarako. ■ A. U.

IURRETA

Hilerria handitzeko lanak urtarrilean amaitu zituzten

Proiektua "ez ohikoa eta ausarta" dela esan du Totorikaguena alkateak



Hilerria handitzeko lanekin, 200 horma-hilobi gehiago ipini dituzte.

Lazko apirilean hasi eta urtarrilean amaitu zituzten hilerria handitzeko lanak. Espainiako gobernuaren tokiko inbertsioetarako diru-laguntzagaz finantzatu ditu Udalak lanak; 660.000 euroko aurrekontua izan dute lanek.

Lanen ondoren, emaitza "ez ohikoa, berezia eta ausarta" dela azpimarratu du Totorikaguena alkateak, eta 2.500 metro karratuko azalera 200 horma-hilobi berri egin dituztela. Angel Basabe arkitektoak "maite dugun nor-

baiten heriotzak eragiten digun hustasun sentsazioaren sinbolo" den hilerria diseinatzea izan duela asmoa azaldu du, "bisitariari lasaitasuna eta sosegua transmitzea, eta hori ingurua zauritu barik egitea". ■ I.E.

ABADIÑO

Aparkaleku gehiago egiteko proposamena

Traña-Matiena auzoan autoentzako aparkaleku falta larria dela eta, "arazoa kontutan hartu eta herriko hainbat lekutan neurriak hartu beharra" dagoela salatu dute jeltzaleek, kaleratutako oharrean. Zehatzago, Matienako Trañapadura kaleko aparkaleku faltari erantzuteko, inguru hura "berrizteko" premia nabarmendu dute jeltzaleek, eta, azaldu dutenez, Udaleko Hirigintza Batzordean ere mahaigaineratu zuten proposamena.

Matienako Trañapadura kalean 15 aparkaleku berri sortzeko proposamena luzatu dute jeltzaleek

Axier Garate bozeramaile jeltzaleak nabarmendu duenez, Trañapadurako oinezkoendako babesguneak auto gehiago aparkatzea eragozten du: oinezkoendako babesgune hori txikitu eta aparkamendua diagonalean eginda 15 aparkaleku gehiago egongo ei liriteke.

Proposamena Udaleko Hirigintza Batzordera eraman dutela eta, beste alderdi bien adostasuna lortuz gero, aparkaleku faltaren arazoa konpontzeko aukera balegokeela diote euren idatzian jeltzaleek. ■ I.E.

OTXANDIO

Konpostaren gaineko erakusketa egin zuten Udaletxeko arkupean

'Durangaldea maite dugulako' kanpainaren barruan antolatu zuten erakusketa asteburuan

Durangaldea maite dugulako kanpaina aurkeztu zutenean, ekimen orokorrez gainera herrian herriko ekimen zehatzak ere burutuko zituztela jakinarazi zuten. Bide horretatik, Otxandio maite dugu-

lako izenpean, konposta zer den eta izan ditzakeen onurak ezagutzera emateko erakusketa antolatu zuten, joan zen asteburuan, Udaletxeko ataripean. Panel informatibo batzuek konposta egiteko

prozesua erakutsi zuten. Horrez gainera, goizean zehar bideo bat ere jarri zuten gai beraren ingurukoa. Panel eta bideoez gainera, benetako konpostagailu bat ere ikusgai ipini zuten. Erakusketa amaitu zenean, konpostagailu hori zozkatu zuten herritarren artean.

Otxandio maite dugulako-ko kideen esanetan, "Otxandiok konpostaren arloa lantzeko aukera ematen du. Birziklatzeko ohiko moduekin batera (beira, papeira...) konposta ere ondo baliat-

Benetako konpostagailu bat ikusgai ipini eta zotz egin zuten herritarren artean

tzen bada, hondakinak are gehiago murrizten dira". Gainera, "konposta ongarri moduan ere erabili liteke", azaldu dute.

Horrez gainera, kanpainaren barruan beste ekimen bat ere burutuko dute asteburu honetan. Etorkizunean Otxandiotik pasatu daitekeen goi tentsioko kablearen zein Motxotegin egin asmotan diren parke eolikoaren inguruko informazio orriak banatuko dituzte buzoirik buzo. ■ J.D.

Konposta baliatzeak dauzkan onurak jakinaraztea zuen helburu erakusketak



Herritarrek Udaletxeko arkupean izan zuten ikusgai erakusketa.

IZURTZA

Argiteria berrizteko diru-laguntza

Kaleko argiteria zein frontoi barruko bonbillak aldatuko dituzte Aste Santu ondoren herri guztian. Argiteria publikoan ahalik eta eraginkortasun handien lortzeko kenduko dute argiteria sistema zaharkitua, eta bonbilla berriak ipiniko dituzte.

Kaleko argiteria zein frontoi barruko bonbillak berrizteko dituzte Aste Santu ondoren herri osoan

Udalaren 2010erako aurrekontuetan ere energia alperrik galtzea eragozteko neurriak hartzeko diru-atala gordeta daukaten arren, aipatutako argiteriaren berrizteko egiteko gastuaren %70 ordaintzeko diru-laguntza onartu dutela jakinarazi dio Bizkaiko Aldundiak Udalarari.

Bestalde, kirol azpiegiturak berrizteko Bizkaiko Aldundiak ematen duen diru-laguntza jaso ahalizateko proiektua aurkeztuko du Udalak: diru-laguntza horregaz, frontoiaren barrualdea margotzeko eta atontzeko helburua dutela azaldu du Udaleko Gobernu Taldeak. ■ I.E.

ZALDIBAR

Nerea Garitagoitia EAJko alkategai

Zaldibarko datorren udal hauteskundeetarako alkategaiaren izendapenak ezustekoa eman du. EAJk Nerea Garitagoitia, Zaldibarko alkateordea, ipini dute datorren udal hauteskundeetarako Zaldibarko zerrendaburu. Garitagoitiaren hautagaitza joan zen aste amaieran azkeneko momentuan aurkeztu zuten, eta asteleheneko batzarrean Idoia Mendiolagaraik baino babes handiago lortu zuen. Uri Buru Batzarrak Mendiolagarai proposatu zuen alkategai, baina asanbladan Garitagoitia aukeratu dute.

Nerea Garitagoitia hamai-ka urte daramatza EAJko zinegotzi Zaldibarren, orain alkateordea da, eta kultur eta diruzain zinegotzia ere bai. Bi legegintzaldi alkateorde egin ondoren orain alkategai da. ■ G.A.



Iban Gorriti



DURANGALDEA



Jasokundeko abesbatzak entseguetan hainbat ordu eman ditu.

Durango eta Mallabia finalaren atarian

Jasokundeko abesbatza eta Rock Izarreko abesbatza 'Oh Happy Day'-ko izendapenen gauan

Telebistako saio batek abesbatzen lana ezagutzera ematen lagun du. ETB1en zapa-tuetan ikusgai dagoen *Oh Happy Day* saioan eskualdeko bi ordezkari ditugu: Durangoko Rock Izar eskola eta Mallabiko Jasokunde-ko abesbatza. Finala geroz eta gertuago dagoenez, datorren zapatuko saioa garrantzitsua izango da.

Durangoko taldeak lehiaketako barne-aukeraketan parte hartzeko deia jaso zuenean, taldea osatzeari ekin zion. Rock Izar esko-

Durangerrek saioaren barne-aukeraketan parte hartzeko deia jaso zutenean ekin zioten lanari

lako ikasleak, irakasleak, lagunak eta kanpoko jendea ere gertu agertu zen Mar koru zuzendariaren gidaritzapean lehiaketako abestiak prestatzeko.



Rock Izar eskolan lana banatzen dute saioa prestatzeko.

Mallabian, berriz, gai honetan eskarmentu handiagoa izan arren, inork gutxi ixaroten zuen Jasokundeko abesbatza *Oh Happy Day*n finalaren atarira helduko zenik. parte-hartzaileak mallabitarak dira, eta dituzten bitartekoak urriak dira. Ikusmin handia sortu du taldearen parte-hartzeak mallabitarren artean. "Meritu handiko lana dela" azaldu dute herri-kideek. "Makaleko ezberdintasu-

Ikusmin handia sortu du Mallabiko taldearen parte-hartzeak herritarren artean

na dago hasierkoa eta oraingo saioen artean, zer esan elizan ohituta geunden saio bat ikusi edo ETBko saioen artean", diote.

Mallabiaren izena lau haizetara zabaldu dute. Aitor Loiola alkateari galdetuta, eskerrak eman gura izan dizkie "herri txiki hau handia egiten laguntzeagatik. Kantatzen duen herria ez da inoiz hilko, herri bizia da". ■ J.G.

MALLABIA

Trabakuan pasabidea eskatzeko protesta

Mallabiko auzokideek traktoreekin eta autoekin kontzentrazioa egin zuten zapatuan, Trabakua gainean. Traktoreak eta ibilgailuak kartelez josita, Trabakua-Zengotita eta Zengotita-Trabakua martxa egin zuten 12:30ean, traktore eta autoekin.

Protestaren bultzatzaileek oinezkoendako eta abereendako pasabidea eskatzen dute BI-633 errepidean, Trabakua parean. Aldundiak errepide hori konpontzeko lanei ekin diela eta pasabidea egiteko unea dela diote auzokideek.



Traktore eta autoekin antolatuta zuten protesta.

MAÑARIA

Kultur etxearen proiektua zehazten

Beheko solairuan Errekondo jate-txea eta jubilatuen egoitza hartzen dituen eraikinaren bigarren eta hirugarren solairuan kultur etxea atondu gura du Udalak. Kultur etxea eraikitzeko proiektua horren barnean Udalak urte honetarako daukan egitasmoa, eraikinaren kanpoaldetik igogailu bat atontzea da.

Eraikinaren goialdeko pisu bietan kultur etxeagaz lotutako instalazioak eraikitzeko, 240.000 euroko aurrekontua du Udalak, eta lanak datozen hilabeteetan esleitzea aurreikusten dutela azaldu dute arduradunek. Ludoteka eta gimnasia egiteko lekua, datorren urterako prest gura dituztela ere aurreratu dute. ■ I.E.

DURANGO

Jesuitak ikastetxeko ikasleak, ingelesekin elkartrukean

Inglaterra Lancashireko Stonyhurst ikastetxeko 16 ikaslegaz elkartrukea egiten dihardute Durangoko San Jose Jesuitak ikastetxeko ikasleek. Urtarrilean izan ziren durangarrak Ingalaterran, eta hango bizimodua eta jendea ezagutzeko zein ingelese praktikatzeo aukera izan zuten duragarrek bi asteko bidaian.

Durangoko ikasleei dagokie bisitariak hartzea orain, eta datozen asteetan Euskal Herria eta gure bizimodu eta ohiturak ezagutzeko dituzte Lancashireko ikasleek. Euskal Herrian zeharrekoeuren bidaiaren gidari Jesuitak ikastetxeko ikasle gazteak izango dituzte, beraz, Ingalaterrako gazteek.



Domekan berririkiko du PSE-EEK Durangoko Herriko Etxea

Domekan 12:00etan egingo du PSE-EEK Durangoko Herriko Etxea berririkitzeko ekitaldia. Hantxe izango da Patxi López lehendakaria, PSE-EEKo idazkari orokorra ere badena. Beragaz batera beste hainbat ordezkari sozialista egongo dira: Bizkaiko sozialisten idazkari orokor den José Antonio Pastor eta Durangoko sozialisten elkarteko idazkari orokor den Fernando Castillo.

Joan zen uztailaren 9an ETAK Durangoko Herriko Etxea erasotu zuen. Herriko Etxearen ondoan ipinitako bomba batek eztanda egin zuen eta kalte material handiak eragin zituen. Ez zen zauriturik izan.

ELORRIO

Gaur, bihar eta etzi Kiroldegiko frontoian da Aukera Azoka

Estetikarako produktuak, ume zein helduentzako jantziak, etxerako altzari eta osagarriak, lentzeria zein oparitarako salgaiak... aukeran izango dira martxoaren 26an, 27an eta 28an Elorrion. Gaur, bihar eta etzi, Elorrioko Kiroldegiko frontoian da Aukera-Aukeran Azokaren hitzordua. Elorrioko Merkataria Elkarteak antolatzen duen azoka, egun guztian zabalik izango da martxoaren 26an eta 27an, 10:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 20:00etara bitarteko ordutegiagaz. Domeka goizean ere, 10:00etatik 14:00etara, Kiroldegiko frontoia zabalik izango da aukeran dauden salgaiak erosi gura dituztenentzat.

Karibear dantza ikastaroan izena emateko epea luzatu dute

Elorrioko Udalak antolatzen dituen dantza-ikastaroen barruan, karibear dantza ikastaroa dago. Udal arduradunek jakinarazi dutenez, "izen-emateen arrakasta" dela-eta, talde bakarra behar-rean bi antolatzea erabaki dute. 27 lagunek eman dute izena orain arte, eta taldeak 20koak dira. Beraz, martxoaren 19ra artekoa zen izena emateko epea luzatu egin dute apirilaren 10era arte. Hain zuzen ere, egun horretantxe ekingo diote karibear dantza ikastaroari Iturri kultur etxean. Interesatuak 946032032 telefonoan eman dezakete izena. Gurago duenak honako e-maila ere erabili dezake: iturri@elorrio.net.

GAER DESINFEKZIOAK
Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:
LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZISITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...
Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tf./Faxa: 94 622 57 74 - 48240 BERRIZ Mug: 658 75 72 79

Hemen agertu gura badozu
deitu!
94 621 79 02

IRITZIA >

Gutunak

Zoramena

Aste batzuk daroaguz Durangotik Abadiñora eta Abadiñotik Durangora gabilzenok zoro-zoro eginda.

Batetik, derrepente bide bat mozten dabe, inongo abisurik barik eta bide alternatibo barik.

Eta, bestetik, hasten ditue obrak denak batera; Eroskiko rotondatik Durangora, San Faustoko bidea itxita, Abadiñon bidegurutzera ebakita, Matienan Donostirantz edo Bilborantz doan bidea be erdi moztuta eta abar. Horren ostean, nik bi kontu ikusten ditut, biak be kezkarriak zergak zintzo-zintzo ordaintzen doguzenontzat.

Bat: Abadiño eta Durangoko udalen artean dagoen koordinazio falta. Jesarriko ete ziren alkarregaz bi udaletako politikari edo teknikoak pentsetako zelan egin kalterik gitxien? Jesarriko ete ziren pentsetako nondik bideratu kotxeak? Kia...

Bi: erabiltzaileak ez dira existitzen udalekoendako. Uste dot entitate pribatua izan balitz, hau da, sartzen diren kotxeen arabera kobratuko baleukie soldata, erabiltzaileokiko begirune handiagoz ibiliko litzatekezela.

Ea hurrengorako...

Gorka Barrietabena - Durango

1937ko martxoaren 31a eta apirilaren 26a: Durango eta Gernika

1937ko martxoaren 31n faxistek 400etik gora lagun hil zituzten Durango suntsitzean. Hilabetera, apirilaren 26an, ehundik gora hildako eragin zituzten faxistek Gernika txikitzean.

Otuko litzaioke norbaiti apirilaren 26an Gernikako Udalak gerratean hildako guztiak omentzea? Otuko litzaioke norbaiti Gernikako Udalak herriaren erretzea eta bertan hildako herritarren alde eratzen duen ekitaldian faxismoaren alde borrokatu ziren gernikarrak ere gogoraraztea? Bada, hori egiten du Durangoko Udalak martxoaren 31n.

Durangoko Udalak, azkeneko hiruzpalau urteetan, martxoaren 31ko eguerdiko 12:00etan ekitaldia antolatzen du hilerrian, eta bertan omena egiten zaie Durangon gerratean zehar hildako guztiak: bonbardaketetan hildakoei, faxismoari aurre egitearen hildakoei eta faxismoaren alde hil zirenei. Ekitaldia adiskidetze eta bakearen izenean egiten da.

Gu ez gaude adiskidetze eta bakearen aurka, ezta pentsatu ere. Baina bagaude martxoaren 31n egiten den ekitaldi horren aurka. Oro har, hauek dira arrazoiak: 1) gure ustez, martxoaren 31 bonbardaketa ikaragarria salatzeke eguna izan beharko litzateke; sarraskiaren zehaztasuna hurrengo belaunaldiei argitzeke, eta berriro halakorik, ez hemen ez inon, gerta ez dadin aldarrikatzeko; 2) adiskidetzea eta bakea guztiak kontuan hartuta egin beharko da, eta ez erakunde baten aldarrikapena jarraituz, eta gutxiago erlijio katolikoaren menpean (kapera kristau batean egiten da ekitaldia, eta bertan oroitarri batean idatzi dira, besteak beste, askatasunaren alde bizitza eman zuten eta kendu zieten hainbat durangarren izenak); 3) adiskidetzea eta bakea aldarrikatzeko, beharrezko jotzen dugu gertatu zena argitzea, hildako guztiak euren senitartekoengana hurreratzea eta sarraskiaren erantzuleak nortzuk izan ziren argi uztea.

Gure ustez, martxoaren 31n badago zeregina Durangon:

sarraskia salatzea, sarraskiaren erantzuleak salatzea, Jose Antonio Agirre lehendakariaren bidea jarraituz, sarraskiaren lekukotasuna hurrengo belaunaldiei jakinaraztea, eta gertatu zena lau haizetara zabaltzea. Horrexegatik, zera eskatzen diegu herritarrei: arratsaldeko 20:00etan bildu gaitezen Andra Mariko elizpean bonbardaketa ikaragarria gogorarazteko.

Durango 1936 elkarte

Martxoak 27, eskubide sozial eta laboralak defenda ditzagun!

Durangaldeko ELAK, LABek eta EHNEk gutun hau idazten dugu Euskal Herriko gehiengo sindikalak deitu eta antolatu dituen datorren martxoaren 27ko manifestazioak direla-eta. Zehazki, dei egiten dugu Bilbon, arratsaldeko 17:30ean, Bihotz Sakratutik aterako den manifestaziora. Mobilizazio horrek Espainiako Gobernuak, pentsioetan eta lan-legerian egin nahi dituen erreforma gogorren kontra egiten ari garen kanpainari erantzuten dio. Asmo horiek langile klasearen eta herritar guztien eskubide sozial eta laboralak urratzen ditu. Oihartzun handiena izan duen proposamena, erretiratzeko adina 65 urtetik 67ra atzeratzea da. Baina askoz gehiago dago pentsio berriak murrizteko erasoan: aurrez erretiratzeko adina atzeratu, alarguntzako pentsioak murriztu edo aldi baterako ezintasunaren ordain txikiagoak ematea, adibidez. Beste helburuetako bat erreforma laboral gogor bat da, kaleratzearen kostu erreala merkeagoa izan dadin, langileen malgutasuna areagotzeko, ABLEen eta enplegu agentzia pribatuaren egitekoa zabaltzeko eta negoziazio kolektiboa zentralizatzeko (Espainian), ez dadin aukerarik egon hitzarmena zer esparrutan eta zer gairen inguruan negoziatzen den. Euskal gehiengo sindikalak murrizketa horiek guztiak arbuia egiten ditu, eta bertan behera gera daitezela exijitzen du.

Erreforma hauek banketxeek, patronalak eta horien esanetara dauden hedabideek eskatzen dituztenak dira. Eta Zapaterok gastu publikoa 50.000 milioi murriztu nahi du, enpleguaren eta gizarte-gastuaren kaltetan. Euskal Herriaren horretarako lan-kide finak ditu: Patxi Lopez eta Miguel Sanz. Langile-klasearen indarra mobilizazioan eta borrokan datza; horrela egiten die aurre politika neoliberal eta antisozialei. Eta horregatik egin genuen maiatzaren 21eko greba orokorra eta dekalogoaren sinadura bilketa (131.894). Aberastasuna era justuagoan banatu behar da; enplegu gehiago behar dugu, eskubide laboral sendoagoak, gizarte babes zabalagoa eta zerga sistema justuagoa.

Gainera, Euskal Herriaren hartu behar dira pentsioei eta eskubide laboralei buruzko erabakiak. Hori guztia dela-eta, larunbat honetan gure hiriburu eta kaleak bete egin behar ditugu.

Mikel Etxebarria ELA • Laida Zubillaga LAB • Iñigo Etxebarria EHNE

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:
Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta
astekaria@anboto.org

Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta Anbotoren irizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Sei hankako mahaia



Idoia Agorria
PSE-EE

Negoiazioen emaitza

Durangoko beharrak eta egoera ekonomikoa kontuan hartuta negoziatu ditugu oraingo aurrekontuak, PERCO-berria eta Iraunkortasun Planaren ekintzak barne. Saiatu egin gara lehentasuna ematen hiritar gehienei; merkataritzari eta garapen iraunkorrari on egiten dieten proiektuei. Halaber, proiektu hauek herriko ekonomia bultzatuko dute, enpleguak sortuko dituzte, herriko azpiegiturak nabarmen hobetuko dituzte, eta baita Durangoko mugikortasuna ere. Adibide bat jartzeko, Urki-Hegoaldearen Eratzuna edo Landakoko biribilgunea aipatu ahal ditugu, Francisco Ibarren berrantolaketa eta egokitzapenarekin.

Zolatu publiko eta pribatuak egokitzeko asmoa dugu, zabortezi zikin eta ilun bihurtu dira, eta Herri Debekatuaren puntu beltzak gehitu.

Udaletxe honetako burutu gabeko gaia babes ofizialeko etxebizitzak dira. Aurten, 2010ean, 250 etxebizitzekin hasiko ginatke, alogera eta erosketarekin.

Tratu txarren biktimen laguntasun-zerbitzuak jarraituko du eta ezarritako proiektuak, enplegu-proiektu berriekin osatuta, lan-mundura bergizarteratu ditugu 45 urte baino gehiagoko Durangoko emakumeak, luzaroko langabetuak... Hiritartasunarentzat negoziazio emanorra izan dela uste dugu, baina behar hauek guztiak existitzen ziren iragan zen urtean era; eta baita aurrekoan ere...

Gauza bat dago ulertezina egiten zaiguna: zergaitik EBBk ez du negoziatzerik nahi izan gaur arte?

Hiritarren mesederako proiektuak bultzatu ditugu; merkataritzari eta garapen iraunkorraren aldekoak

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

diruz lagundutakoa

anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarte
2010eko martxoaren 26a - 9. urtea - 367 zk.

Laguntzailea:	Eta honako Udal guztiak:		
	Abadiño	Elorrio	Mallabia
	Atxondo	Garai	Mañaria
	Berriz	Iurreta	Otxandio
	Durango	Izurtza	Zaldibar

Zuzendaria: Jone Guenetxea.
Erredakzio burua: Joseba Derteano.
Administrazioa: Itziar Belar, Miren Abasolo eta Naiara Alzaga.
Publizitatea: Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.
Erredakzioa: Aitziber Basauri, Pello Mugarza, Itsaso Esteban, Markel Onaindia, Amaia Ugalde eta Gemma Aldalur.
Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.
Testu zuzentzailea: Igor Elortza.
Argazkilariak: Iban Gorriti, Ana Dominguez, Kepa Aginako eta Juanra de la Cruz.

BERBAZ >

Xabier Madariaga•

- ETBko kazetaria
- 29 urte ditu



Argazki Press

“Haitiko lurrikara gehien ukitu nauen esperientzia izan da”

Eguenean Durangora etorri zen kazetari bilbotarra Haitiri buruzko mahai-inguruan parte hartzera.

Hogeita bi urtegez Palestinara joan zen Xabier Madariaga (Bilbo, 1981) kazetaria, eta ordutik herri askotan ikusi dugu korrespontsal lanetan. Durangoko Bateginez GKEak antolatutako ‘Non zara, Haiti?’ mahai-inguruan izan da eguenean, lurrikaran bizitakoa kontatzen.

‘Non zara, Haiti?’: izenburu esanguratsua zuen mahai-inguruak. Bai, lurrikararen aurretik guztiz ezezaguna zen Haiti; jende gehienak ez zuen Haiti mapan kokatzen. Lurrikaran zehar komunikabideetan asko agertu zen, baina nik uste dut berriz ere ahaztu dugula, berriro galdera hori egin dezakegula: “Non zara, Haiti?; nahiz eta aste honetan lurrikara berri bat izan duten, eta berriro komunikabideetan agertu den.

Zu lehenengo lurrikara hartan izanzinen. Zelan gogoratzen dituzu Haitira heldutako lehenengo orduak?

Benetan izugarria izan zen. Haitira heldu ginenean, berehala konturatu ginen han ez zegoela azpiegitararik eta herria hankaz gora

zegoela, baina ez lurrikaragatik: arinagotik ere azpiegitura guztia hankaz gora zegoen. Beste lurrikara batzuetan –Pakistanen, Perun– heldu eta berehala GKEen kanpinak ikusten genituen. Baina Haitin, heldu eta jendea noraezean ikusi genuen; ez zuten medikurik ikusi, ez urik, ezta janaririk ere. Azpiegitura falta nabaria zen.

Pasatzen zebilen guztiaren kontzientzia zeneukan?

Guk oso gauza puntualak ikusten genituen, eta gauza orokorreari buruz jakin ahal genuen, baina, beno, adibidez, sakeoen inguruan asko egin zen berba. Guk ez genuen bat ere ikusi, eta asko egin zen berba horri buruz. Azkenean, horrelako

egoera batean nik ez nuke esango sakeoi buruz hitz egingen gabiltzanik: jendeak bizirautea baino ez zuen nahi; jateko zerbait edukitzea. Guk aireportuan GKEak heltzen ikusten genituen, eta esaten ziguten ez zekitela nola eta nora eraman behar zituzten gauzak. Ez zekiten zelan banatu heltzen zen laguntza guztia.

Zer esangura eduki du esperientzia horrek zure bizitzan?

Asko ukitu nau; esango nuke gehien ukitu nauen esperientzia izan dela. Irudi oso konkretuak geratu zaizkit buruan. Ikusitakoak daukadan baloratzen irakatsi dit; askotan bilatzen ditugun eta benetan ez dauden arazoei garrantzia kentzen.

Egoera latzean daude oraindik han. Zelan ikusten duzu Haitiren etorkizuna?

Ez naiz han egon, eta komunikabideetan ikusi dudana baino ez dakit, baina orain

egoera latza izango dutela suposatzen dut; batez ere, euriteak datozele eta etxe barik euriteei aurre egitea oso arazo handia delako. Eta, gainera, esandako moduan, azpiegitura bako herria da; lurrikara aurretik oso azpiegitura urria zeukan, eta horren ostean sortutako egoeratik irteteko laguntza asko beharko du.

Egoera gogorak bizi izan dituzu kazetari legez. Zelan landu beharko lirateke gaiok komunikabideetan?

Nik uste dut ahalik eta istorio konkretuenak gertatzen saiatu behar dugula, jendea identifikatuta sentitu dadin. Argi dagoena da ezin dugula audientziengatik mugitu. Zerbitzu publikoa da gurea, eta nik uste dut Haitin ahalik eta luzeen egon behar genuela, eta berriro bueltatu beharko dugula; ez audientziagatik, zerbitzu publikoa delako eta jendea zor diogulako baizik. ■ A. Ugalde

“Lurrikara aurretik azpiegitararik ez zeukan herrialdea da Haiti”

“Kazetariok ahalik eta istorio konkretuenak gertatzen saiatu behar dugu”

EKONOMIA[>]

>ZALDIBAR

Auvisako enpresa komitea lurretako peajeen kontzentratu zen atzo, 12:00etan, A8an Zaldibar parean eguaztanean hil ziren bi beharginen heriotza salatzen. ELA eta LAB sindikatuek "prekariatateak hil egiten duela" salatu dute, eta autopistako segurtasun protokoloak martxan ipintzeko esan eta erantzukizunak eskatu dituzte.

Ceprenor enpresarentzat lan egiten zuten bi beharginak, 49 eta 50 urtekoak, A8an mantenu-lanetan zebiltzala furgoneta batek harrapatu eta bertan hil ziren. Furgonetako gidaria eta harekin batera zihoan beste behargin bat larri zauritu ziren. Furgonetak bilangileak harrapatu ondoren, haien

Prekariatateak hil egiten duela salatu zuten ELA eta LAB sindikatuek

enpresako kamionetaren aurka jo zuen. Furgonetako gidaria suhiltzaileek atera behar izan zuten ibilgailutik, eta helikopteroz Gipuzkoako Ospitalera eraman zuten, beste zauritua, berriz, anbulantzia Mendaroko Ospitalera. ■ G.A.

Protestak bi beharginen heriotza salatzen

A8an Zaldibar parean bi behargin hil ziren furgoneta batek harrapatuta



Auvisa enpresa komiteak deituta lurretako peajeen kontzentratu ziren lan istripuak gaitzesteko.

>DURANGO

Erraldek estatuko sei behi onenak hil zituen egunean

Erralde hiltegiak kalitateko haragia sukaldaritzako lizentziaturan ikasgai izatea beharrezko ikusten du

Durangoko Erraldek adierazi duenez, hiltegiaren estatuko sei behi onenak hil zituzten egunean. Horien artean, bi idi ere bazeuden, biak 10 urte ingurukoak; "hiltzeko edade aproposena".

Egunean sari banaketa ere egin zuten, 'Erralde adarra' eman zieten Kepa Imaz Berrizko Pedro Juan jatetxeko sukaldariari eta Jabier Garcia Zornotzako Boroako jatetxekoari, "kalitateko behiaren alde egindako apostuagatik, eta

benetako idi-txuletoia goresteagatik". Bestalde, Erraldek Basque Culinary Center-eko bultzatzaileei adierazi gura die beharrezkoa litzatekeela kalitateko haragia sukaldaritzako lizentziaturan ikasgai izatea. ■ G.A.

'Erralde adarra' Kepa Imaz Berrizko sukaldariarentzat

>DURANGALDEA

Sindikatuak zapatu honetako protestan parte hartzera deitu dute

Sindikatuak "erreformen aurrean langileek eredu berri bat" aldarrikatuko dute Bilboko manifestazioan

Langileen eskubideak murriztuko dituzten erreformen kontra eta bestelako eredu ekonomiko eta soziala aldarrikatzeko Bilbon, zapatuan 17:30ean, Jesusen Biho-

arrantza eta industrian, besteak beste. Sindikatuak adierazi duteenez, "instituzioetatik ez da gure eskualdeko etorkizun ekonomikoa bermatuko duen planteamendurik bultzatzen". Gainera, "Durangaldeko biztanleon bizi baldintzak geroago eta eskasagoak dira eta, horrez gain, guksortu ez dugun krisia ordainarazi gura digute enpresa eta instituzioetatik gure kontra botatzen dabilzan neurriekin", hala nola, pensio batzuen murrizketa, alarguntasuna eta bajak, beharginen kaleratzeen merketzea ekarriko duen lan erreforma edo elkarrizketa soziala dira aipatu dituzten arrazoi batzuk. ■ G.A.

"Guk sortu ez dugun krisi bat odainarazi gura digute", diote sindikatuak

tzetik aterako den manifestazioan parte hartzeko deia egin dute gehiengo sindikalak, "gure herriko etorkizun ekonomikoa, Euskal Herriko pensio sistema eta gure lan hartu-emanak, guk erabaki behar ditugulako langileen aldeko eredu berri bat eraiki ahal izateko".

Sindikatuak eskualdean azken hamarkadetan gainbehera ekonomiko handia bizi dugula adierazi dute; nekazaritza,

Bestelako eredu ekonomiko eta soziala aldarrikatuko dute Sindikatuak

■kolaborazioa



Aitor Iturriaga LAB sindikatua

27an denok kalera

27an denok kalera lelopean, inposatu nahi duguten lan erreformaren aurka, euskal gehiengo sindikalak manifestazioak burutuko ditu, larunbat honetan, Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan. Iazko maiatzaren 21eko grebarekin hasitako mobilizazioei jarraiki, 2009an zehar kalera atera ginen, beste gizarte eredu bat posible dela aldarrikatuz, besteak beste, 130.000 sinaduratik gorako babesa jaso duen dekalogo bat aurkeztuz euskal jendarteari. Hamar proposamen zehatz edo zutabetan oinarritu genuen eredu aldaketa, porrot egindako eredu neoliberal eta injustu hori aldatzeko. Jakina bazen ere, tamainako atxikimendu soziala izan duen proposamenak ez du izan erantzunik gure agintariengandik. Izatekotan, alderantzizkoa. Krisiaren hastapenetan, denak omen zeuden sakoneko arazoari adarretatik heltzeko prest. Hondamendiaren erantzuleek izen-abizenak zituzten; hala nola banku eta inbertsio funts handiak. Frogatua geratu zen ekonomia birtualak kutsatu zuela ekonomia erreala, berau irentsi eta galbidera eramateraino. Kolore desberdinetako politikariak kapitalaren mugimendu espekulatzaileei mugak jartzeko beharraz mintzatzen ziren, berauek oztopatu edo zergak jarriz; tobin tasa, kasu. Aho batez onartu zuten denak, kapitalak gobernuen konplizitatearekin gizarte birtual bat sustatu zuela, jendartea konpultsiboki kontsumitzera bultzatuz, azkenean ordaindu ezinako kredituetan zamaraino lokatuz. Hitzak, baina, haizeak daramatza. Banku eta espekulatzaile handiak irabazietara bueltatu eta beraien buruzagiak gizentzen jarraitzen dute, langileen odol eta izerdia xurgatuz. Beldurra eta nahas-mendua sustatuz, azken hilabeteetako debatea luperatu nahi dute. Orain errudunak langileak gara. Lan gutxi egiten dugu eta garestiegiak omen gara. Beraiek sortutako krisia ordainarazi nahi digute hamaikagarren lan erreformaren bidez. Larunbatean Bilbo, Donostia, Gasteiz, eta Iruñeko kaleetan, argi utzi behar diegu ez dugula gure eskubide eta lan baldintzen beste murrizketarik onartuko.

IURRETA INSTITUTUA
Goi-mailako Lanbide-Heziketako Berriazko Institutua

FORMAKUNTZA IKASTAROA:
KONTABILITATE-ANALISIA
(Gaztelerez)

HOBETUZen dirulaguntzaz
NOIZ: 2010-04-12tik/2010-05-27ra
Arratsaldeko 18:00etatik- 21:00etara
Astelehenetik ostegunera.

HOBETUZ
Fundación Vasco para la Formación Profesional Continua
Langileen Formazioaren Erakunde Nazionala

UNIÓN EUROPEA
FONDO SOCIAL EUROPEO

Olaburu, 19 48215 Iurreta (Bizkaia) Tfno.: 94 4668800
www.iurreta-institutua.net - 014950aa@hezuntza.net

KULTURA[>]



Argazkia: I.E.

JAIALDIA > ZILAR ASTEA

'Koblakariak behar ditugu' ikuskizuna Plateruenean

Martxoaren 28an da, domekan, Plateruena, Berbarok San Agustin kulturguneak, Udal Liburutegiak, Literatur Eskolak, Karrika antzerki taldeak eta Durangoko Maristak, Jesuitak, Ibaizabal ikastola eta Fray Juan de Zumarraga institutua ikastetxeek antolatutako lehenengo Zilar Astearen barneko azkeneko ekitaldia: martxoaren 28an, domekan, 10:00etan hasita egingo dute *Ibilbide bat Sarriren memoriaren mapan* deitu duten ibilaldi literarioa.

Euskal idazleen sorkuntzetatik gehien kantatu eta oholtzaratutakoa da Joseba Sarrionandia iurretarrarena, eta euskarazko kulturari Sarrionandiak emandakoa-

ren erakusle, hainbat disziplinatako Durangaldeko zein Euskal Herriko sortzaileen lanak izan dira Platerueneko lehenengo aste tematikoan. Sarrionandia Durangaldeko semea eta idazle garrantzitsua izanik, bere olerki, ipuin eta nobeletan kulturari egindako ekarpenak aintzat hartzeko helburuz antolatu dituzte Zilar Astearen ekitaldiak. Aste tematikoaren lehenengo saioa da goiko argazkikoa: *Koblakariak behar ditugu* ikuskizuna egin zuten Plateruenean.

Gaur San Agustinen taularatu den *Aulki hutsa* antzezlanaren eta Xabier Mendigurenek bihar Udal Liburutegian eskainiko duen berbaldea dira Zilar Astearen beste hitzordu batzuk. ■ I.E.

'Ibilbide bat Sarriren memoriaren mapan' egiteko, domekan, 10:00etan da zita

12 Poesia emanaldia Abadiñon

Joan zen martxoaren 21ean izan zen poesiaren nazioarteko eguna, baina domeka honetarako antolatu dute Abadiñon urtero egiten duten poesia errezitaldia.



13

'Durangoko Pasiñue' 2010

Sasoi honetan urtero legez, Kurutziaga hotolean egin dute 2010 urteko Durangoko Pasiñoaren aurkezpena; Xabier Arana da aurten zuzendari berria.

ANTZERKIA > EMANALDIA

Banarte antzerki taldeak ekoiztutako kabaret satirikoa

Apirilaren 5ean eta 6an Bilboko Campos Eliseos antzokian estreinaldia egin aurretik, Errota kultur etxean erakutsiko dute lana, martxoaren 27an

Bilboko Campos Eliseos antzoki berriztuan, apirilaren 5ean eta 6an, estreinatuko dute Banartekoek euren lan berria: *Vuelve, bigotillo, vuelve*. Bilboko hitzorduaren aurretik, baina, euren herrian, Abadiñoako Errota kultur etxean egingo dute aurrestreinaldia. Martxoaren 27an izango da Banarte talde abadiñoarrak ekoiztu eta Gabriel Reig getxoztarrak zuzenduriko lanaren lehenengo oholtzaratzea.

Kabaret satiriko moduan pentsatutako lana da 2007ko abenduan sortutako Banarte antzerki

Kabaret satirikoa da Banarteren 'Vuelve, bigotillo, vuelve'

Kritika egiten diote boterea norbere interesen arabera baliatzeari

taldearen azkena: gizarte gaiei eta botereari buruzko ikuspegi kritikoak oholtzaratzen duena. Gizarte egoerari eta egoera politikoari buruzko erreferentziak, antzerkiaren eta kantuaren bitartez lantzen dituzte, eta umorea da obraren ezaugarri nagusia; ironia, gehien erabilitako baliabidea.

Boterea norbere interesen arabera erabiltzeari buruzko kritika da David Barbero kazetari eta antzerkigileak idatzitako gidoia duen antzezlanean, eta zuzeneko musika ere bada antzezlaren ezaugarri azpimarragarria. ■ I.E.



GEURE DURANGALDEA



Arantza Arrazola San Agustineko programatzailea

Euskal teatroa

Oier Guillenek duela gutxi Berria egunkarian idazten zuenez, "Atzo, aspaldiko partez euskal teatroa ikusi nuen. Joseba Sarrionandiaren olerkiak ditu Manex Fuchsek 'Aulki hutsa' josteko. Estetika, energia eta zenbait sorpresa atseginetan Lipusen eskua sumatzen zen. Atzo, aspaldiko partez, euskal teatroa ikusi nuelakoan nago. Zergatik? Aspaldiko partez euskaraz sortutako antzezlari bat ikusi dudalako; erderatik itzuli gabekoa, alegia. Tontotzat hartzen ez nauen antzezlari bat. Eskenaratze xumea, baina xehetasun bakoitzean zaindua". Irakurketa honek neure burua itaundu du: zer da euskal teatroa?

Nahikoa litzateke esatea saioa euskaraz bada, eta antzezlariak ere bai, "euskal teatroa" dela, testua jatorriz beste hizkuntza batean sortua izan arren. Nere ustez, hori euskaraz egindako antzerkia da, ez euskal antzerkia.

Zer ote da biak bereizten dituen? Sena delakoan nago, bereizten gaituen idiosinkrasia transmititzen duena; horretarako, euskaraz bururatua, idatzia eta antzeztua izan behar du.

Definizio kontua baino emozio kontua dela esango nuke, asko dira "euskal teatroa" esatean otutakoak: *Babiloniako loreak* FTIrena (iruditzen zait Madrilen ez zutela ulertzen jakin), *Aitarekin bidaiari* HIKArena, *Euskarazetamol* BIKOrena edo Gorringoren *Xabinaitor*.

Oierrekin bat nator esaten duenean "Euskal teatroa zer den ez dakit, ez zer izan daitekeen ere. Nik zer nahi nukeen izatea dakit soilik".

Beste kontu bat da euskal teatroaren ikusle kopuruarena... hurrengo baterako utziko dut. Ahaztu barik: *Aulki Hutsa* San Agustinen emango dute martxoaren 26an.

POESIA > ERREZITALDIA

Martxoaren 21ean izan zen Poesiaren Nazioarteko Eguna, eta zazpi egun geroagorako antolatu dute aurten Abadiñon urteroko hitzordutako poesia errezitaldia. Izan ere, dagoeneko 16 urte badira Vicente Moreno poeta abadiñoarrak poesia errezitaldia antolatzen duela nazioarteko egun horren harira. Durangaldeko poetek eta gitarra batek inguratuta jardun zuen Morenok alboko argazkian jaso dugun iazko emanaldian.

16 urte dira udaberrian poesia errezitaldia antolatzen dutela

Basauri eta Bilboko poetek lagunduko dute Moreno, martxoaren 28an, Matienako Errotan, 12:00etan izango duen errezitaldian: Daniela Bartolome bilbotarra, Antonio Molina basauritarra, eta Vicente Moreno bera izango dira euren olerkiak irakurtzen.

Poeten ahots eta berbak gitarren akordeekin laguntzen, aurretik, Basauriko José Sánchezek jardungo du domekako Errotako emanaldian. Urtetik urtera gaitzagoa izaten dela errezitaldia antolatzea azpimarratu du Morenok, "alde guztietatik trabak ipintzen dituzte", kexatu da, baina

Hiru poetaren errezitaldia, martxoaren 28an, Abadiñoako Errota kultur etxean

Vicente Moreno abadiñoarra, Daniela Bartolome bilbotarra eta Antonio Molina basauritarraren ahotik

urtero legez Abadiñoako Udalaren partetik jasotako laguntza eskertu gura du aldi berean.

Poesia irakurtzeko ohiturarik izan ez arren, Morenok dionez, herritarrek ere eskertzen dute poeten ahotik euren olerkiak zuzenean jasotzea, eta lehenengo edizioan moduan jarraitzen omen dute Poesiaren Nazioarteko Eguneko errezitaldia entzuteragerturaten. Ordubete inguruko ikuskizuna izango da, eta olerkiak eta gitarrak doinuak aletuko dituzte Errota kultur etxeko oholtzan. ■ I.E.

Olerkiak bere doinuekin laguntzen José Sánchez gitarristak jardungo du

Martxoaren 28an, Errota kultur etxean da poesia errezitaldia



Kepa Aginako

moda

2010



Astarloa 15 - Durango Tel. 94 623 26 32
Lehenengo hiletik 16. tailararte



Kolore biziz betetako arropa

Kolorea arropetara ekartzeko sasoia heldu da. Udaberria heldu dela igartzen da umeen arropetan ere. Kolore nahasketa da nagusi denboraldi honetan. Berdea, urdina, gorria eta marroia uzartzeko garaia da.

Tirantedun kamisetak laster jantzi ahal izango ditugu. Beraz, beroari aurre egiteko umeen arropak prest izan behar ditugu.

Neskatoendako soinekoak eta mutikoendako praka laburrak. Aurtengo udaberri-udan erosotasuna da jantziko duten arroparen ezaugarriarik aipagarrienetakoa. Aukeratu dezatela gustukoena.

Nesken kasuan, kamiseta luzeak gainetik jarrita soineko itxura hartuko dute. Lihozko alkandorek arrakasta handia daukate umeen artean. Kolorez betetako alkandora luzeak jantziko dituzte.

Oihaneko lagunak

Arropa gehienek kolore indartsuagoak izateaz gainera, marrazkiak izaten dituzte. Denboraldi honetan animalien marrazkiak ditugu nagusi. Zebrak edo jirafak nonahi aurkituko ditugu kamiseta eta jertsetetan.

Osagarrietan ere animaliak agertuko dira

han eta hemen, bai poltsetetan bai zapietan. Oihaneko lagunak etxeko umeek bidelagun izango dituzte.

Neguko arropa sendoa armairuan gorde eta eguraldi onari ateak zabaldu dizkiogu. Denboraldi berri bati aurre egin behar diogu orain. Uda sasoian umeek aktibitate handia izaten dute, bai eskola orduetan bai gainerako ibilietan ere.

Eguneroko bizi-moduagaz bat datorren arropa aukeratzeko ordua heldu da, beraz.

Udaberri-udako modan arropa koloretsuak eta erosoak aurkitu daitezke aurten denda guztietan.

Sasoia izan daiteke dendetako eskaintzari begiradatxo bat botatzen hasteko, zer edo zer erosten hasi aurretik.



boboli



boboli



boboli



boboli

Denboraldi berrirako dugun arropa eskaintza zabala ezagutzeko sasoia da

Abordatzera goaz!

Udaberriko

arropa erabiliena praka pirata izango da. Kotoizkoa edo bakeroa izan, praka pirata ezin daitezke alde bate-

Praka piratak eta animalien marrazkiekin hornitutako jantziak modan daude

Goazen hondartzara

Bainu denboraldi berria kolore eta marrazkiz beteta dator. Neskendako marradun bikiniak moda-modan daude. Mutilendako, berriz, surf estiloko bainujantziak. Aurten ere hondartzara eta igerilekura egunpasa joateko aukera bikaina dugu.

Umeek hondartzara eta igerilekura jolasera joateko aprobetxatzen dute udaberria. Bainu denboraldia martxan jarriko dute laster, eta ordurako umeen bainujantziak gertu izan behar ditugu. Arropa eroso eta gustura eramatekoa izan behar da, jolasean hara eta hona salto eta jauzika ibiltzeko.

Marrak

Marra koloretsuak izango dira aurten nesken bainujantzietan nagusi. Larrosa eta

berdea dira gehien eraman- go diren koloreak.

Mutilek, surf estilokoak izango dituzte. Kolorez betetako bainujantzi luzeak eraman- go dituzte.

Babesa

Eguzkitan ordu asko ematerakoan umeak babesta komeni da. Eguzkiak gogorren jotzen duenean gerizpean egoteaz gainera, kamiseta jantzita eramatea eta umeen azala babesteko krema ematea komeni da.

Hondartzara eta igerilekura joateko bainujantzia aukeratu beharra dago



boboli



boboli

Arropa fresko eta modernoa



Arropa freskoa, etereo eta ausarta da aurtengo udaberri eta udan modan dagoena. Zeta ukituek eta traspazentziek ere garrantzia hartuko dute.

Arropa zabalak eramango dira aurtengo, estuak baino gehiago, silueta markatzea ez baita aurtengo bilatzen dena. Erosotasuna eta 'casual' arropak hartuko du garrantzia.

Ba i egunez baigauz eramangarria izango den arropa aukeratuko da 2010eko udaberrian eta udan.

Marrakiz eta lora-

dun kamiseta eta txaketak ere asko ikusiko ditugu; praka edo soineko motzekin eramangarriak.

Arropa eroso

Shorts eta jeans gastatuak asko eramango dira aurtengo, erosotasuna eta modernitatea da hauekin lortuko dena. Praka piratek arrakasta handia izaten dute beroa egiten hasten denetan. Oso eramangarriak dira, hondartzara egun baterako zein kalean eramateko; gainera, eramateko zer arropa aukeratzenean, itxura dotoreago edo informalago lortu daiteke. Diseinatzaileek erosotasuna eta modernitatea uztartzen dute udaberrirako.



Soinekoak

Hainbat koloretako soineko laburrak, belaunetik gorakak, dira modan daudenak, mugimendua eskaintzen dute eta era berean dotorezia ere bai. Modan daude hondartzarako soineko fresko eta eramanezkoak ere.

Marrakiz kamiseta eta soinekoak arrakasta handia izaten du urtero udara garaian, eta aurtengo ere modan egongo dira. Era guztietako marrak eramango dira, zabalak eta meheak, eta hainbat koloretan gainera.

Alkandora luzeak ere oso eramangarriak dira sasoi honetan, gerrikoagaz edo barik; bi estilo lortu daitezke era horretan, momentuaren arabera aukeratzeko. Alkandora luzea batez ere gona edo praka laburrekin eramango da. Beti ere, alkandora modu informalean eramatea da aurtengo beroa datorrenarako modan dagoena gaurko emakumearentzat.



Arropa zabal eta ausartak eramango dira udaberri-udan honetan, osagarriekin edo gabe; bi estilo aukeran

Arropa eroso, fresko eta ausart aukera aurtengo udaberri-udan modan joateko. Arropa zabalak eramango dira estuak baino gehiago, eta egunez eta gauzez eraman daitezkeen aukeratuko da. Soineko, shorts edo piratek sasoi honetako arropa izarrak dira, koloredun txaketa eta alkandorekin batera.

Udaberriak kolorez janzten ditu arropak

Udaberriagaz batera kolorea dator arropetara. Kolore indartsu eta distiratsuak eramango dira aurtengo udaberri eta udan, baina pastel koloreak eta arrosak ere indarra hartuko dute. Modan dauden koloreak, batez ere,

Kolore indartsu eta distiratsuak daude modan, eta pastel kolorea

moreak, laranja, urdinak eta berdeak dira. Koloreekin jolastea da sasoi honetarako diseinatzaileek proposatzen dutena; ausartenentzat berdea fuksiarekin edo arrosa urdinarekin konbinatuz. Hainbeste kolore eramatea gustuko ez dutenentzat, pastel koloreak aukera aparta dira aurtengo udaberrirako.



garcia ariño kirolak

ga

Tel./Faxa: 94 681 77 55
San Ignacio Auzunea, 4-A
48200 DURANGO (Bizkaia)

Fresko eta eroso kalean jolasteko



tienda bego



tienda bego

Kolore eta ehundura distiratsuez gainera, eta horiekin konbinatuta, hippie estetika gogorazten duten jantziak nagusituko dira udaberri-udan kalean.

Hirurogei eta hirurogeita hamarrekoko hamarkadetako hippien janzkera imitatzen duten alkandora eta kamisetak, kolore askotakoak ikusiko ditugu udaberri-uda honetan umeentzako arropa dendetan. Izan ere, horixe da umeentzako modan datozen hilabeteetarako diseinatzaileen proposamen nagusia.

Hirurogeiko hamarkadan gaur egungo umeen aitita-amama izan zitezkeenek janzten zituzten kolore distiratsuko arropa hippie itxurakoek betetzen dituzte 2010eko umeentzako moda katalogoak.

Distiratsu

Kolore eta ehundura distiratsuez gainera, edo horiekin konbinatuta, gastatutako itxura duten jantziak izango ditugu aukeran. Psikodeliaren etikaren ikutuak ere baditu, bestalde, udaberri-udarako moda proposamenak.

Orain arte aipatutakoak, bost urte-tik aurrerako umeak janzteko proposamenak dira, izan ere, bestelakoa baita adin horretara artekoek zuzendurikoa. Txikitxoentzako kolore ez hain biziak

proposatzen dituzte diseinatzaileek gehienbat: larrosa, lila eta urdin argiak, esate baterako. Alboko argazkietan ikusten den bezala, klasikoak baino, beharbada orain arte aipatutakoak baino ohikoagoak egiten zaizkigun bakero itxurako jakak ditugu ume txikiarentzako ere aukera-aukeran.

Hippie

Bost eta hamar urte arteko neska-mutilentzako dira gehiago, hippie itxurako gona luzeak edo gastatu itxurako bakero prakak.

Eguraldia berotzen hasten denerako apropos, bestalde, ez labur ez luze ez diren

piraten itxurako prakak ere asko ikusiko ditugu udaberrian eta udan. Neska zein mutil, fresko eta eroso egoteko ezin egokiagoak dira aldamenteo argazkian jasotzen ditugunak lako prakak koloretsuak.

Eguraldia berotzen hasten denerako, ez labur ez luze, piratenen itxurakoak diren prakak neska-mutilentzat



tienda bego



tienda bego



tienda bego

Pausoz pauso bidea egiten



Neguko hotzak atzean utzita, txikitxoentzako euren lehenengo pausuak ahalik eta eroso eman ditzaten, oinetakoak ahalik eta fresko eta aireztatuen izatea da udaberriko epeltasun eta udako beroetarako gomentatutakoa. Oinetakoak, beraz, malguak izatea bilatuko dugu, batez ere.

Katamar ibiltzeari utzi eta bi hanken gainean ibiltzen ikasten dabiltzanean oinetako aproposak izatea oso garrantzizkoa dela azpimarratzen dute adituek, eta oinetako fresko eta arinak izan arren, gutxienez hiru zentimetroko zola izatea komeni da. Aipatutako ezaugarriez gainera, umeentzako oinetakoen Durangaldeko dendetan itxura eta kolore guztietako oinetakoak topatuko dituzue denboraldi honetan ere.



Laubideta, 20 behea
48220 Matiena
tel. 94 681 09 82

umeentzako arropa
0 tik 14 urterarte

Edozegaz konbinatzeko moduko arropa

Gizonezkoen arropetan, bai goiko zein beheko jantzietan kolore neutroko jantziak nagusituko dira aurtengo udaberrian eta udan.

Aurtengo udaberrian, dendetara sartu eta era guztietako bakeroak ikusiko ditugu perxtetan dindilizka. Udarako ere, praka labur bakeroak ikusiko ditugu aspaldiko partez. Forma modernoak dauzkaten prakak ez dira faltako, baina 90eko hamarkadako estiloa ere bueltatuko da; barrenetan tolesturak dituztenak ere egongo dira gizonezkoen prakten artean.

Aurreko urteetan praka piratet arrakasta izan dute, baina, badirudi aurtengoan praka laburragoak izango direla nagusi dendetan. Praka nahiko nasaia izango dira, erosoak eta nahiko tela freskoagaz egindakoak.

Alkandora eta txamarra ere ikusiko dugu ehun bakeroa, baina bestelako materialak ere topatuko ditugu, gehienak tonu grisetan. Nikien gainera eramateko alkandora eta zira finak modan egongo dira, azken tendentzien arabera. Narruzko jakak ere ez dira faltako dendetan. Kolore guztietako narrua ikusi ahaliko dugu. Udaberrian eta udan eguraldi epelagoa izaten bada ere, gizonezkoen arropen artean fularrak ere aurkituko ditugu dendetan; geroago eta gehiago erabiltzen dira.

Marradun arropak

Kolore bakarreko nikiak ohikoak izaten dira gizonezkoen janzkeran, eta aurtengo arropa den-

zuriagaz konbinatuta, kolore biziagoak tartekatuko dituzte niki horiek.

Estilo dotore baina era berean informala da udaberri eta uda honetan nagusituko dena. Betiko koloreak eta erraz konbinatu daitezkeen jantziak ikusi ahal izango ditugu dendetan.

Kolore nahiko neutroak ikusiko ditugu: grisa, urdina eta berdea. Marradun nikiak ere modan egongo dira

Oinetako erosoak

Oinetako fabrikatzaileek kolore guztietako zapatila erosoak egin dituzte aurtengo udaberri eta udarako. Moda urbanoa edo hiritarra deitutakoan, marroiak, berdeak eta grisak ikusiko ditugu, esaterako. Praka laburrekin eta galtzerdi motzekin erabiltzeko moduko zapatilak dira, nahiko nasaia eta erosoak. Bestelako jantzi-



dentan horrelako ugari topatuko dugu. Koloreei dagokienez, kolore hotzak eta klasikoak nagusituko dira; tonu grisak asko topatuko ditugu, zurixkak eta marroixkak ere tartean egongo badira ere. Hortik aparte, berdea eta urdina asko ikusiko ditugu. Lur koloreko jantziak ere ikusi ahaliko ditugu. Udarako, zuria ere modan egongo da.

Horiez gain, aurtengo marradun niki eta jertse finak ere edukiko ditugu.

Nahiko marrazabaldun nikiak egongo dira modan. Grisagaz eta

osagarriei dagokienez, mota guztietarako biserak daude merkatuan, eta gerrikoak ere

topatuko ditugu, beti ere, aipatutako tonu klasikoetan.

Azken urteotan praka pirata asko ikusi dugu dendetan. Aurtengo prakak motzagoak nagusituko dira



eme
elorriko merkatarien elkarte



caribu

Dotorezia beti dago modan

Dotorezia berdin luzitu daiteke gaztetan ere. Soineko arinak, alkandora marradunak zein orbandunak... joera guztiak daude indarrean aurten.

Bere epeltasun samurra lau haizetara txeratsu barreiatzen hasi zaigula, eguzkiak kalera irteko gonbita luzatu digu beste behin, sudur punta gorrien eta hatzamar

hertzuen sasoiak joan dela adieraziz, eta ate-joka dugun eguraldi distiratsuzko egun koloretsuagoen araberako arropak erosteko unea hemen bertan daukagula ohartaraziz.

Guraso batzuek armairura joko dute

zuzenean, han zer aurkituko, z e r

Soinekoek askatasuna ematen diote neskatilari, eta kolore argiak ondo josten dira udaberri sasoiagaz

aprobetxatuko. Berdin seme-alabei dagokienean ere. Baina arropa denetako eskaparteetan ere tendentzia berri, koloretzu, alai eta deigarriak aurkitu daitezke; begitik jateko moduko jantziak.

Irudiek eder- to islatzen dutenez, neskatila gazteei begira, soineko leun, arin eta eramanerrazak aukera ezin hobea dira. Sorbaldak libre eta belaunburuak bistan, airosa eta panpoxa luzitzea ahalbidetzen dute soinekoek. Koloreei dagokionez, beti gertatzen den moduan, zenbat buru hainbat aburu. Zuriak eskuzabalik jasotzen du argitasuna eta, oro har, konjuntua nabarmendu egiten du. Zuria bistosoago egingo duten alderik aldeko marra argiek ukitu berezia eta era-



caribu

kargarria emango diote bai soinekoari bai berau daraman gaztetxoari. Kolore ilunek melodia otzanagoak proposatzen dituzte, baina berdin izan daitezke gustagarriak. Arropa aukeratzeko orduan, gustua ez ezik, egokitasunari ere begiratu behar zaio; esan nahi da ilearen eta begien koloreak zein azalaren tonuak baldintzatu dezakeela soineko baterako edo besterako azkeneko aukera. Soineko-

tu daitezke umeago diren haurren kasuan ere. Goiko irudiko haurrak praka bake-roak daramatza, mendebaldeko laukitxodun alkandoragaz ederto ezkontzen direnak. Alkandora horrek paparra eta tripa aldea bistaratzeko aukera eskaintzen du; kasu honetan, kamiseta urdin argia, cian kolorekoa, armoniotsu ageri da, osotasunari esangura erabatekoa ematen diola. Barrabaskeriek ere gehiago luzitzen dute hain dotore jantzita.

Azkenik, erreparatu egiozue goialdean eta eskuman ageri den nestila pertxenta jantzitakoari. Informaltasuna eta dotorezia akordio erabatekora iritsi direla dirudi. Ukondoraino tolestutako alkandora orbanduak, kolore askoren

mazedonia uzartzen duenak, itxura modernoak ematen dio neskari, paparaldetik pare bat botoi askatuta eramateak joera hori areago nabarmen-tzen duela. Praka nasaien alde banatara dauden poltsiko handiek, funtzionaltasunaren helburua betetzeaz aparte, konjuntorearen adiera harrokoa azpimarratzen dute, kontzientzialtasunetik ihesi ez, baina apurtzaile ere izan gura dutela argi utzi nahian.

Aukera asko daude, beraz, udaberriko zein udako aurtengo joeren artean.



caribu

kin amaitzeko, komendi zapa-tak, sandalia k zein ileko gantxoak orokortasunagaz eskutik joatea.

Mutikoek kasuan, erosotasunak ez du esan gura dena libre denik. Praka eta jaka koloretsuak zein arreak aproposak izan daitezke udaberrian ere. Praka nasaiak, apurtxo bat jausiak, hantemenka orbanduak, erabiliak... mutiko jostariari gizon plantatxoak ematen diote, burua tente ibili dadin.

Gomendio berberak aplikat-



caribu

Aurtengo udaberrian ere gaztetxoei bideratutako kolore eta gustu guztietako arropak aurkitu daitezke

Ondo aukeratutako alkandorak beti dira erakargarri



caribu



caribu
www.caribu.es
Juan Antonio Unzueta, 4
Matiena • 94 620 43 24

Zapata eroso eta eleganteak

Datozen hilabeteotan oinetako eroso eta arinek hartuko dute protagonismoa, baina horrek ez du esan gura elegantzia alde batera utzi behar dugunik. Jantzi botak, zapaten munduan sartzera goaz-eta.



Oinetakoak garrantzitsuak dira estetikoki zein praktikoki. Dotorezia eta erosotasunaren arteko oreka topatzea da sekretua. Udaberri eta udako beroek, gainera, aukeraketan ere badute eragina.



biltzeko. Kuina estiloko takoia daukaten botak ere ez ditugu armairuan utziko, denboraldi honetan ere moda-modan egongo dira-eta. Indar handiz merkaturatu sartuko diren beste oinetako batzuk arretokoak izango dira.



Gizonak

Beste urte batez, aurten ere gzonezkoen oinetakoek estilo gazte eta eroso izango dute.



Emakumeak

Botinak kalean ditugu berriz ere, kasu honetan, kordioak ekarriko dituzte eurekin. Egokiak dira gona eta alkandorekin era-



Horretaz aparte, Peep Toe estiloko botak erabiltzen jarraituko dugu, azken hilabeteetan moduan. 50kadan agertu ziren bota hauek,

Kuina estiloko takoia duten botak ez ditugu armairuan utziko, denboraldi honetan ere moda-modan egongo dira-eta

Nahiz eta kirola egiteko balio ez izan, gizonentzako zapatek itxura deportiboa izango dute. Horietako batzuek velcrozko itxidurak izango dituzte, normalean kordioak ikusiko diren arren. Dena dela, aipatzekoa da azkenaldian lotzekoak ez diren zapaten

Gzonezkoen oinetakoek estilo gazte eta eroso izango dute

Udako egun sargorietan, oinetako simple baina erabilgarriak

arrakasta; seguru batek baino gehiagok egingo dauela mokasin berritu hauen aldeko apustua.

Oporretarako

Uda parteko egun sargorietan, oinetako simple baina erabilgarriak nagusituko dira. Sandaliak, takoiagaz edo takoi barik, han eta hemen ibiliko dira.

Bainuan ere ezin itxura ona galdu



Tenperatura beroekin batera hondartza eta igerilekuak betetzen hasiko dira. Momentu ona da hau bainujantzi berria erosteko. Tendentziei kasu eginez, dotore-dotore pasiatuko gara eguzki egunetan.

Bainujantzia, edertasun arrazoiengatik bere oinarrizko funtzioa gehien galitzen duen arropa dela esan daiteke. Bainua edo eguzkia hartzen erabiltzeko jaio zen, baina ezin ukatu estetikak eragin nabarmena duela. Gaur egun, hainbat apaingarri eransten zaizkie, batez ere neskenei.

Emakumeak

Aurtengo uda sasoiari bikini labur eta estuak izango dira era-

Aurtengo udan marradun bikiniak izango dira jantzienak

bilienak, 60kadan inspiratuta beti ere. Hala ere, emakume ausartenentzako hor izango dira trikiniak ere. Koloreei dagokienez, gama zabala izango da aukeraren. Fuksia eta antzeko kolo-

re biziak alaitasuna izlatuko dute. Puntu-txo edo borbil formak berriro gurean izango dira. Aurtengoan, hala ere, marradun bikiniak izango dira jantzienak, ezkerreko irudian ikusi daitekeen moduan.

Gizonak

Klasikotasuna gailenduko da gizonei begirako bainujan-



tzietan. Hala ere, baliteke kolore biziak inoiz baino gehiagotan nabarmentzea. Luzera normala edota belau-netarainokoa aukeran; gazteen artean azken hau zabalduko da, batez ere.



Begirada baten aurre-aurrean

Betaurrekoen industrian diseinatzaile ezagunak lanean hasi zirenetik, modako osagarri garrantzitsu bilakatu dira. Betaurrekoak aukeratzeko modako joerak kontuan hartu arren, ezin da ahaztu kristalaren kalitatea dela benetan begiak babesten dituen. Betaurrekoak konfiantzako leku batean erosteak produktua kalitatekoa dela segurtatuko digu.

Betaurreko batzuk aukeratzeko erabaki beharreko lehenengo gauza zertarako erabiliko ditugun da. Erabileraren arabera, behar dugun babes-filtroa—kristalek lau filtro mota izan ditzakete— eta kristalaren kolorea zehaztuko dugu. Begietara helduko den argi-intentsitatea eta erradiazio-motagaz daude biak lotuta. Betaurrekoen tamaina ere kontuan hartu beharra dago. Eguzki-izpiak ez dira aurrealdetik bakarrik heltzen, beraz, betaurrekoek ingurua ere estali behar dute kristalaren eta armazoiaren

arte. Babes egokia ez duten betaurrekoak erabiltzeak ikusmenean lesioak eragin ditzakete, beraz, kontuz jokatu beharra dago. Garestienek ez dute zertan babes handiena eman. Filtro motari eta betaurrekoaren tamainari erreparatzea komeni da aukeraketa egokiaren egin dezagun.

Pastadunak eta metalikoak

Denboraldi guztietan estilo askotako betaurrekoak aurkitu ditzakegu, baina urte bakoitzean modan jartzen direnei erreparatzea ez da soberan egoten.

Emakumeentzako pastatzko betaurreko handiak

dira diseinatzaile ezagunek denboraldi honetarako presatatu dituztenak. Koloreen artean aukera ugari izango ditugu. Grisetik aldentuta, moreek ikutu berezia emango dute. Betaurrekoak modako osagarri bat gehiago dira eta betaurreko sinpleenetik harribitxiak dituzten eta aukera zabalagoak dira.

Gizonezkoen kasuan, betaurreko metalikoak izango dira gehien ikusiko ditugunak. Kasu honetan, grisaz gainera, marroi kolorekoak nagusituko dira.

Betaurrekoek eskaintzen duten babesa da ezagutu beharreko ezaugarria



Bitxi ederren sasoia da



Arropa gutxiago eramanterakoan bitxiak protagonismo handiagoa hartzen dute udaberritik aurrera. Diseinu aldetik mota askotako

takoak topatu ditzakegu. Euskal mitologian oinarritutako bitxiak diseinatzeko dabilta hainbat marka ezagun.

Harridun bitxiak ere topatuko ditugu. Anbarra, belarritako, lepoko, eskumuturreko eta eraztunetan ikusiko dugu.

Koloretako harriak ere zilarrezkoak dira. Berdea eta urdina izango dira erabilienak.



bitxiak aurkitu ditzakegun arren, proposamen berezi batzuk aukeratu ditugu.

Eguzkiloreak oinarri hartuta lepoko eta belarritako eleganteak sortu daitezke. Zilarrezko zein urrezko, tamaina guztie-



Kremailerak birziklatuz

Bitxien merkaturak berrikuntzak geroago eta ugariagoak dira. Ohiko materialak erabili barik bitxi ederak diseinatu daitezke. Birziklatutako kremailerekin sortutako brotze eta lepokoak dira joera berri honen adibide.



urtaro berria,

begirada berria

EROSKI optika



ANTZEZPENA > PASIÑOIA

Eguazten iluntzean Durangoko Kurutzia hotelean egin zuten 2010eko *Durangoko Pasiñoaren* jendaurreko aurkezpena; antzezle gazte zein Durangoko Udaleko ordezkari politiko asko batu ziren bertan. Hamazazpigarren edizioa duen antzezpenari buruz, aurkezpen mahaian Udalaren ordezkari-egon zen Aitziber Irigoras alkateak nabarmendu zuenez, “halako ekimen kultural bat hainbeste urtean mantentzea, eta gainera bolondresen lanean oinarrituta egitea ez da ohikoa izaten”. Juan de Iciar elkartearen lana goraiatu zuen: “lan honek erakusten du barrua, bihotza bero daukazuela”, esan zien alkateak aurrean zituen Juan de Iciar elkartekideei.

Aurkezpenean alkatearen aldamean egin zen Juan de Iciar kultur elkarte Txema Asategi lehendakaria, eta hark azaldu zuenez, “berritasun berezirik bako antzezpena izan da aurtengoa”: izan ere, *Durangoko Pasiño*ko pertsonaia nagusien antzezleak berriro jardungo dute euren egitekoetan: orain urte bi legez Aitor Casalek egingo du Jesusen papera, eta Fermi Ordoñezek Mariarena.

Aitor Casal gazteak egingo du Jesusen papera, eta Fermi Ordoñezek Mariarena

Azken urteetan legez, jende gaztea antzezpenean parte hartzerantz bultzatzen jarraitzen dutela nabarmendu zuen Asategik, “etorkizunari begira hori da jarraitu behar dugun bidea”. Jesus eta Mariagaz batera antzezpenean parte hartzen ia 130 lagunek jardungo dute aurten ere, martxoaren 31n eta apirilaren 1 eta 2an, 21:15etik aurrera San Ana plazan izango diren antzezpenetan. Sarrerak, 7 euroan, ohiko bideetatik lortu daitezkeela gogorarazi zuen Txema Asategik: Santa Anan dagoen Arco tabernan eta 656777321 telefono zenbakian egin daitezke erreserbak.

Eszena berria antzezpen amaieran Antzezpenaren amaierari bizitasun gehiago eman eta aberasteko helburuagaz, eszena berri bat gehitu dute aurtengo edizio-rako: “Berpizkundearen eszenaren aurrekoa da pasarte berria”, azaldu dutenez. Bost minutuko eszena izango da, Xabier Arana zuzendariak nabarmendu duenez. “Jesus hilobian sartu eta atoan erdiko gortinan ipinita *Aleluya* abestia ipini eta gero kontatu izan da Jesusen berpizkundera”, dio Aranak: “Ebanjelioan betidanik mozketa bat gertatzen da puntu horretan; Jesus lurperatu eta hurrengo egunean jarraitzen du

Eszena berria gehitu diote aurten ‘Durangoko Pasiñoa’-ren gidoiari

Martxoaren 31n eta apirilaren 1ean eta 2an, 21:15ean Santa Ana plazan egingo dituzte aurtengo XVII. Durangoko Pasiñoaren hiru emanaldiak



Judit Fernandez

kontakizunak”. Antzezpenaren gidoiari dagokionez, azken hamazazpi urteetan egin den berrikuntza nagusia da 2010eko edizio honetan erakutsiko dutena.

*Durangoko Pasiño*aren hamazazpigarren edizioa antolatzeko 45.000 euroko aurrekontua izan dutela azaldu zuten aurkezpenean, eta esker bereziak eman babesle nagusia duten Durangoko Udalarik: Udaleko behargin guztiak eskertu gura izan zituen Asategik. Durangaldeko lantegi eta merkatarien laguntza ere eskertu zuen elkarte lehendakariak aurkezpenean.

45.000 euroko aurrekontuagaz jardun dute ‘Pasiñoa’ antolatzen aurten

Durangoko Pasiñoa ikustera datozen bisitariak egun hauetako emanaldien ondoren Durango eta durangarrei buruz hartzen duten irudia goraiatu dute aurkezpenean: kultur ekitaldi eta tradizio moduan *Pasiñoak* daukan garrantzia ez eze, turismoa erakartzeko duen ahalmena ere azpimarratu dute aurkezpenean izan diren Durangoko Udaleko ordezkariak. Ehundik gora herritarrek azken hileetan prestatutako antzezpena ikustera, durangar zein bisitariak gonbidatu dituzte. ■ I.E.

Xabier Aranak jardun du aurten ‘Durangoko Pasiñoa’ zuzentzen

San Fausto jaien inguruko egunetan proposatu ziotela *Durangoko Pasiñoa* zuzentzea azaldu digu eguazteneko aurkezpenean Xabier Aranak. Orain arte zuzendari lanak egin dituen Juanjo Etxarte aurten ez zela Durangon egongo-eta eskatu zioten ardura hartzea. Elkarteko Batzordekoek eskatzen diotena egiteko gai ikusiz gero bere burua “beti laguntzeko prest agertu” izan delako Arana.

Azken urteetan *Durangoko Pasiño*an antzezle moduan parte hartzen lagun legez ikusi izan dutenekin, azkenerako, apur bat gogor ipini behar izan duela kontatu digu Aranak. Entseguak gidatzeko arduraduna bera dela konturatzeak denbora eraman omen die kide batzuei: “Ni betikoa naizen arren, entseguetan 130 lagun arduradunak daukat, eta txantxetan ezin dut ibili”, gaineratu du Aranak.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

MARTXOAK 28 17:30ean
OLGETAN
TAILERRAK ETA JOLASAK
AISIALDIA EUSKARAZ. Sarrera doan.

APIRILAK 9 22:00etan
CRAY LABWORKS SHOWCASE
5 YEARS ANIVERSARY
RUBEN KOSTAS & RUBEN UNDERSOUND
IX. GAU ELEKTRONIKOA. Sarrera: 8 euro (flyer 6)

APIRILAK 10 19:00etan
DANTZALDI IBILTARIA
AIKO TALDEA
ERROMERIA. Sarrera doan.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

AULKI HUTSA
Le Petit Théâtre de Pain (Lapurdi)

Martxoak 26 • 22:00etan

LAS HISTORIAS DE MULÁ NASRUDÍN
Trotacómicos (Nafarroa)

Martxoak 28 • 19:00etan

San Agustín KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

HITZ

Liburudenda

11-91 601 07 76 Artekale, 14 Durango

AGENDA >

> ANBOTOKo agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Martxoaren 28an, 19:00etan

LAS HISTORRIAS DE MULÁ NASRUDÍN

Ekialde urrunetik dator Mulá Nasrudin San Agustineraren ezezagunak zaizkigun munduetako kondaira poetiko eta umoretsuak kontatzeko. Maitemindutako ilargi eta eguzkien kontuak, emakume ederren ipuinak, lagunena eta etsaienak... Gure bihotzak eta berbak jantziko dituzten kontraerak. Oholtzan kontatzaile bakarra, alfonbra eta ikusleen irudimena.

ANTZERKIA

ABADIÑO

>> 'Vuelve, bigotillo, vuelve', lan berria estreinatuko du Banarte antzerki taldeak, martxoaren 27an, Errota Kultur Etxean, 20:00etan.

DURANGO

>> 'Las historias de Mulá Nasrudín' antzerki saioa, martxoaren 28an, 19:00etan, San Agustinen.

>> 'Aulki Hutsa', antzerki saioa martxoaren 26an 22:00etan San Agustinen.



ERMUA

>> Haurrentzako antzerkia: 'Sarean Sun Sun' Anita Maravillasen eskutik, 17:00etan, Lobiano Kultur Gunean.

ZORNOTZA

>> 'El Mundo al Revés. Una historia de bufones' martxoaren 26an, 21:00etan, Zornotza Aretan.

BESTEAK

DURANGO

>> Olgetan tailerrak 3 eta 10 urte bitarteko umeentzat; kariokak, firi-firiak eta malabareak... martxoaren 28an, 17:30ean, Plateruenean.



IURRETA

>> Kimuak aisialdi elkartearen Aste Santurako eta udarako eskaintzan izena emateko epea hasita dago, Kultur Etxean eman behar da izena; martxoaren 26a izango da azkeneko eguna. Aste Santuko tailerrak, LH 3. mailatik DBH 1. mailara arteko gazteentzat izango dira. 10 euro balio du matrikulak. Udalekuei dagokienez, finkoa eta ibiltaria antolatu dituzte. Uztaileko lehenengo hamabostaldian, ibiltarian murgilduko dira DBH 3. mailatik 17 urtera arteko gazteak. Bigarrenean, finkoan, LH 5. mailatik DBH 2. mailarakoak batuko dira. 190 euro balio du; 170 etxe beretik bi joanez gero, edo familia ugariak izanez gero.

>> Iurreta Txirrindulari Elkarteak ibilbideak antolatu ditu martxoaren 27 eta 28an 09:30etan Iurretan.



>> Iurreta Txirrindulari Elkartea, martxoaren 28an, 11:00etan, Eskolarteko BBT-ko kriteriuma.

>> Bidezabal Atletismo Taldea, XXX. Iurretako Hiri Froga, 10:00etan, martxoaren 28an.

ZALDIBAR

>> Gaztelekua, martxoaren 26tik 28ra, 12 eta 16 urte bitarteko gazteentzat. Bideogintza (editatzea eta zinea), 16:00etatik 20:00etara.

ZORNOTZA

>> Erdu Olgetan, umeentzako aisialdi programa, 6 eta 10 urte bitarteko

haurrentzat, martxoaren 27an, 16:00etatik 20:00etara, Zelaieta zentroan.

>> Gazte gaua, 14 urtetik aurrerako gazteentzat, martxoaren 27an, Zelaietan.

>> Gazte txokoa 2.0, 14 urtetik aurrerako gazteentzat, martxoaren 26an, Zelaieta Zentroan.

DANTZA

DURANGO

>> Dantzaldi herrikoia. Durangoko Plateruena kafe antzokian erromeria, apirilaren 10ean, 19:00etan.

DEIAK

DURANGO

>> Odola emoteko aukera, eguenero, 16:30etik 21:00etara, Anbulatorio Zaharrea. Mugarra odol-emaile elkarteak deituta.

IURRETA

>> Astelehenero jaiak antolatzeko batzarrak egingo dira, 20:00etan, IMIko lokaletan.

ERAKUSKETA

ABADIÑO

>> Asun Areitio Larrinaga margolariaren erakusketa Errota Kultur Etxean apirilaren 10erarte ikusgai.

BERRIZ

>> Ateak, leihoak eta aldabak, argazki erakusketa Kultur Etxean,

martxoaren 15etik 30era.

DURANGO

>> "La Biblia: Historia de un pueblo que busca su libertad" erakusketa Aste Santura arte egongo da ikusgai Uribarriko Andra Maria basilikan. Astelehenero larunbatera, goizez 09:30etik 13:00etara, arratsaldez, 17:00etatik 19:00etara. Domeketan goizez bakarrik.

ERMUA

>> Margoa erakusketa, martxoaren 16tik 29ra, Lobiano kultur gunean, Zelaieta Zentroan.

ZORNOTZA

>> 'Mal aire' erakusketa hilaren 16tik apirilaren 6ra. Zelaieta Zentroan.

>> Katsumi Komagata. Martxoaren 30era arte, Liburutegian.

>> Bosteko 2010-01-27 erakusketa. Elena Goñi, Ramón Pérez, Ignacio Sáez, Leire Ugalde. Apirilaren 7tik 28ra ikusgai.

HITZALDIA

DURANGO

>> 'Egungo komikiaren panorama' hitzaldia, martxoaren 26an, Liburutegiko hemerrotekan, Josune Muñozen eskutik, 18:00etan.

IKASTAROAK

DURANGO

>> Barreterapia Gure Izarrak taldeak antolatuta, hilabeteko azken

ostiralean, ekainera bitartean. Izena-ematea eta informazioa telefono zenbaki honetan: 665 72 26 63

>> Zaindu programaren baitan, Durangoko adinekoren udal egoitzan: Norbere burua zaintzea, ikastaroa apirilaren 14an eta taldeko laguntza psikologikoa apirilaren 13an. Ordua: 17:30-19:30.

>> Patinaje ikastaroa, zapatuetan. 6 eta 15 urte bitartekoentzat, 16:00etatik 17:30etara. Nagusientzat, 17:30etik 19:00etara, Kurutzia Ikastolan. (Informazio gehiago: 94 603 0031)

>> Euskal dantzen ikastaroa. Martitzenero, iluntzeko 19:30etik 21:00etara, Plateruena Kafe Antzokian, AIKO taldearen eskutik.

>> Kontserba begetalak eta mermelada egiten ikasteko ikastaroa, apirilaren 14tik 28ra, 18:00etatik 20:30-21:00etara. Izena emateko: Berbaro elkartera 946201918 telefonora deitu. Plaza mugatuak; 16 laguntzako lekua dago.



>> Tailerra: Eleberri Beltza. Apirila bitartean izango dira eskolak. Hamabost egunean behingo maiztasunagaz, Juana Lopez de Muniain-en eskutik. Izena emateko Liburutegira gerturatu.

MAÑARIA

>> Jendearean nola hitz egin ikasteko ikastaroa. Irakaslea: Manu Maraño Uriarte. Apirilaren 12, 19, 26 eta maiatzak 3 eta 10, 17:00etatik aurrera. Izen emateko azken



anboto, durangaldeko astekaria



Egin zaitez harpidedun

harpidedun egiteko, deitu 94 681 65 58 telefonora edo harpidedun@anboto.org-ra zure izen-abizen eta helbidea bidali

eguna martxoaren 30ean, astear-
tean, izango da.

IPUINAK

DURANGO

» **Haurrentzako ipuin kontaketa** saioa, Jenni Alvaradoren eskutik, martxoaren 27an, 12:00etan, 3 eta 5 urte bitarteko haurrentzat. 12:30ean, 6 urtetik gorako umeentzat.

ERMUA

» **Haurrentzako ipuin kontalaria**, martxoaren 27an, Liburutegian 17:30ean.

IURRETA

» **Haurtxoen irakurketa kluba**, martxoaren 26an, 3-6 urte bitartekoentzat, 17:30etik 18:30era, Herri Liburutegian.

» **Helduentzako ipuin kontalaria** 'Pasiones irrefrenables' Reyes Guijarro eta Marta Gujarrorren eskutik, 20:00etan, Liburutegian.

ZALDIBAR

» **Ipuin-kontalaria** 3 eta 5 urte bitarteko umeentzat, martxoaren 26an, 17:30ean, Liburutegian; 18:00etan, 6 eta 9 urte bitarteko umeentzat. Maite Arreseren eskutik.

ZORNOTZA

» **Kontu kontetan** martxoaren 27an haurren liburutegian.

MUSIKA

BERRIZ

» **Berrizko musikariak**. Berrizko musika ikastegian ikasle izandako lau musikariak emanaldia eskainiko dute, martxoaren 26an, 22:00etan

Kultur Etxean.

» Berrizko Hiltegitze gaztetxean **Tres41 + Fracture + Fourscore**, martxoaren 26an, 22:30ean.

DURANGO

